

ARGIA



#2,865 | 2024 / 03 / 31 | 4,00 €

23. KORRIKA *Herri harroa euskararen ekosistema eske*

24-29. orrialdeak



Klase borroka eta ekologismoa eskuz esku, Italiako Campi Bisenzion

12 | EKONOMIA



Datorren Ertzaintza: hiperzaintza eta teknologia

30 | AHOZTAR ZELAIETA



LARRUN #294
Artoaren iraultza

Euskararen zikintzea

Haizea Alonsorekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Bi astelehenean behin ARGIA n eta plataforma guztietan



Apirilak 1, astelehena, 20:00etan argia.eus-en

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: AEK

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | ZIGOR ETXEBURUA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | RUBEN SÁNCHEZ

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



WIKIPEDIA

34 | ZER EKARRIKO DUTE OLINPIAR JOKOEK PARISKO AUZO TXIRORA?

“Eredua gehiegitan errepikatu da. Olinpiar Jokoak auzo baztertu bat berritzeko aitzakiazat hartzen dira, baina higiezinaren negozio bilakatuta, bertako biztanle asko kanporatu egiten dituzte” azaldu du Xabier Rodríguezek erreportajearen.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL Campi Bisenzioko GKN fabrikan batu dituzte langile borroka eta ekologismoa

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | JOKIN PANTXESKA “Hiru aldiz esan dute gorria naizela, komunista!”

Miel A. Elustondo

24 | IEUSKARA Korrika, jarraipen berezia

Leire Artola

30 | IERTZAINZAZ AHOZTAR ZELAIETA “Enpresa pribatuen esku utzi da segurtasun publikoaren norabidea”

Jon Hidalgo

34 | KIROLA | PARIS 2024 Eredu olinpiko ezagun baten sintomak

Xabier Rodríguez

36 | INAZIOARTEA | JUDITH BILELO “Erakundeek ez digute lagunduko, gure hizkuntzan hitz egitea lortzen ez badugu”

Miel A. Elustondo

46 | KULTURA | UXUE ALBERDI Zer diosku kilkerak belarrira?

Ainhoa Aldazabal

48 | KULTURA Zinearen historiako film-kontzerturik “onena”

Julen Azpitarte

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Korta

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X
Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta


ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Prestaturiko selfiea

Ez dira gutxi harrিতa geratu direnak gazatarren penuriez barre egiteko israeldar zibilek sare sozialetan zabalduko bideo andanaz. Beste hainbeste esan genezake soldadu sionistek palestinarrei egindako barrabaskeriak argi eta gordin erakusten dituzten froga grafikoez. Esanguratsuen da, ordea, gehienak soldaduek beraiek sareratu dituztela. Alegia, suntsipena, tortura edota umiliazioaren irudiak zabaltzea erabaki dutela, hautu politikoa dela. Askoren begietara sinestezina gerta badaiteke ere, Israelek hedatu nahi duen irudia gizatasunik gabekoa dela. Indarrarena. Deshumanizazioarena. Defentsa ministro Yoav Gallantek argi esan zuen urriaren 9an: Gazan, "giza animaliak dira eta horren arabera tratatuko ditugu".

📷 Soldadu sionista batzuk selfie baterako prest, Gazako mugan / T. ABAYOV AP.

🔪 AXIER LOPEZ



Beskoitzeko ikastolari lurrak erabiltzeko baimena luzatu diote

 LEIRE ARTOLA ARIN

Herriko kontseiluaren gehiengoak lurrak ikastolari 2025era arte, beste urtebetez alokatzearen alde agertu da, eta jarraian auzapezak dimisioa aurkeztu du. Ikastolako gurasoei eta Seaskari hitzarmen berri bat aurkeztekotan geratu da herriko etxea.

Kolokan zegoen Lapurdiko Beskoitzeko ikastolak datorren ikasturtea non egingo zuen, abenduaren 18an Fabienne Aienza auzapezak jakinarazi baitzien lurrak utzi beharko zituztela uztailearen 6an, herriko kontseiluak hala ebatzita. Astelehenean, ordea, alokatzeko baimena urtebetez luzatzea erabaki du herriko kontseiluaren gehiengoak.

Hamabi hautetsi hitzarmen berri bat egitearen alde agertu dira, lau kontra eta bat abstenitu egin da. Beraz, 2025eko uztailean arte lurrak alokatzen jarraitzeko proposamen baten zain daude Beskoitzeko ikastolako gurasoak. Azken asteetan hainbat hautetsirekin izandako bilkuren ondorioa izan da martxoaren 18ko erabakia, jakinarazi dutenez. Ikusteke dago zein diren hitzarmenaren

Fabienne Aienza auzapezak iragarri du dimisioa aurkeztuko diola Pirinio Atlantikoetako prefetari

baldintzak eta 2025etik aurrera zer gertatuko den ikasleekin.

Beskoitzeko ikastolarekin akordioa egitea ebatzi dutela jakinarazi ostean, Fabienne Aienza auzapezak iragarri du dimisioa aurkeztuko diola Pirinio Atlantikoetako prefetari. Beskoitzeko ikastolaren gatazkari lotuta herrian piztutako giro ezatsegina azpimarratu du, eta azaldu du azken asteetan "irainak eta mehatxuak" jasan dituela eta, besteak beste, osasun arazoaren eraginez dimittitzea erabaki duela. Hemezortzi urte zeramatzan auzapez izaten.

Orain, prefeturak hauteskundeak egiteko data finkatu beharko du, auzapez berria aukeratzeko.

Beskoitzeko ikastolarekin herriko etxeak izandako gatazkaren ondorioz beste hiru hauteskik ere dimititu dute azken hilabeteetan, Berriak gogorarazi duenez.

ERAIKIN BERRI BAT ALTXATZEKO PROIEKTUA

Beskoitzeko ikastolak 2013an eraikin sendo bat izateko proiektua aurkeztu zion Seaskak herriko etxeari; prefabrikatueta daude gaur egun, herriko etxeari alokatutako lurretan. Seaskak egindako eskaera guztiei ezetz esan zieten, eta prefabrikatuak kendu eta eraikin berria jasotzea ezinezko bihurtu zuten. Seaskako eragileek eskatu dute herrian dauden gela hutsak baliatzea, herriko kantuan bazkaltzea, aparkaleku publikoan autoa uztea edota jabe pribatu baten lursaila alokatzea. Denari ezezkoa eman dio herriko etxeak, eta lursail horietatik joateko agindua jaso zuten. Hainbat gorabehera, protesta eta bilkuraren ostean, prefabrikatueta segitzeko baimena jaso dute beste urtebetez. ●



Ezkerrean, Beskoitzeko herriko kontseiluaren gehiengoak lurrak alokatzen jarraitzearen alde bozkatu du. Eskuinean, ikastolako ikasleak, prefabrikatueta.

MATERIALISMO HISTERIKOA

“Mario Lopez” eta “Gernika”



UXUE APAOLAZA LARREA

Krimen matxistak, mediatizatzen direnean, emakumeontzat lezio bilakatu ohi dira, eta bizirik badago, biktimarentzat. Nerea Barjola ikertzaileak Alcasserkoko kasuaren bidez azaldu zigun hori. Eta Nagore Laffageren hilketak ere lezio astun bilakatzeko arriskua izan zuen, lezioa emakumeontzat, bereziki, klase sozial batetik beherakoentzat. Baina, azkenean, norbaitek bataila asko irabazi ditu, orain, Nagore Laffage izateko sinbolo, eta lezioa izan zedin Diego Yllana hiltzailearentzat, eta bere kasakoentzat. Norbaitek borroka asko egin du; norbait gogoratu da ez ahazteaz.

Azken egunetan berriro irakurri ditugu izenok medioetan. Yllanak, ahanzturarako eskubidea omen duela-eta, helegitea jarri zuen Googlek bere izena hilketa harekin lotzen dituen sarrerak ezaba ditzan. Bere izena jakitea kosta zenarekin 2008 hartan, biktimarena baino esaten ez zenean, biktimarena zikintzea askoz errazagoa zenean. Ikasi dugu, ondo, medioek biktimak birrintzen dituztela. Ikasi dugu, ahal dela, biktimaren izena ezkutatu egin behar dela, gizartearen zati handi bat krimen matxista errepikatu eta errepikatzeko prest dagoelako, ukazioz, ez-sinestez bada ere. Audientzia Nazionalarekin ados egon behar oraingoan: ukatu egin dio ustezko eskubidea Yllanari. 2008an irabazten hasi ziren bataillen emaitza bat ere bada.

Birrintzeko biktimaren izenik eman ez zaienean, ordea, medioek errazago ahazten dute, dirudienez. Duela hiru hilabete beste krimen matxista batek hartu zituen medioak, birrintzeko biktimarik eskaini gabe. Izen bat irakurri genuen: Mario Lopez. Gogoratzen zarete? Oraindik “Mario Lopez” eta “Gernika” googleatu, eta gogoratzeko aukera daukazu. Oraindik ez da erabaki lezio publikoa, mediatikoa norentzat izango den kasu horretan. Nor ahaztuko dugun. Zer gogoratuko dugun. Beraz, gogoratu: ez ahaztu. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ZATIKETARIK EZ! NAZIO
ZAZPIAK BAT
BAT GARA!
BATA SUNA!

BAINA...



MOTZEAN

Soldaten emendia aldarrikatzeko greba eguna burutu zuten martxoaren 20an, Ipar Euskal Herriko sektore publikoan. 500 lagun batu ziren Baionan eginiko manifestazioan. Sektore publikorako erreformarekin Frantziako Gobernuak sektore pribatuko logika funtzionarioen baitan txertatu nahia salatu zuten.

Hezkuntza sistema sozialista aldarrikatu eta “negozioen eta inposizioen” hezkuntzaren kontra egin dute Hego Euskal Herriko ikasleek, IAK deituriko greba egunean.

Apirilaren 1ean eta 2an egingo da Idazleen Biltzarraren 41. edizioa Saran. Ipar Euskal Herriko historia jaso duten argitalpenak eta historialariak izango dira hizpide.

Bizkaiko Diputazioak abiatu du Urdaibaiko Guggenheimarentzat lursailak erosteko prozesua. Muruetan 32.000 metro koadro erosteko asmo du, besteak beste museoa eraikitzeko.

Euneiz unibertsitate pribatuaren proiekturako egindako “zuhaitz mozketa masiboa” salatu du Elkarrekin Arabak: jarduerak “eragin larria izango du Salburuako hezeguneetan”.

Bestaldera begira



ULA IRURETAGOIENA

Eta arkitektoen burbuilean, krisi klimatikoaren gaineko kezka igartzen al da? Galdetu dit agroekologoak.

Eraikuntzaren sektorea CO2 emisioen portzentaje altuaren eragilea izanik, galdarak zentzua badu. Naomi Klein-ek *Honek dena aldatzen du* liburuan kontatzen du nola hegazkin batek aireportu-pistako bero tenperaturagatik aireratu ezinik, bidaiariak hegazkinaz aldatu eta potentzia handiagoko hegazkin batekin bidaiari hartu zutela, eta gure krisiarekiko harremana anekdota honek jasotzen omen du: hegaldiaren beharrezkotasunaz galdetu beharrean, hegaldiak bere bidea egiteko mugimenduak egiten ditugula, eta jarrera honek ez duela krisia onartzen eta beraz bestaldera begiratzea dela. Eraikuntzaren praktikan teorizazio asko ageri da klimaren fenomenoekin eraikitzeko eta naturalizazio bideak eraikin eta kaleetan barneratzeko. Aldaketak argiak dira arautegi teknikoetan energia aurrezpenerako teknikak eta teknologiak betearazteko beharrazatik, edo eraikuntzen eta kaleen "krisialdirako egokitzapena" lan iturri bilakatu delako. Baina "eraikuntzaren hegaldiak" berdina izaten jarraitzen du. Eraikina merke eta azkar egiteko aldarrietan oinarritzen bada, bestaldera begira gauden seinale.

Gero eta arkitekto talde gehiago dago manifestu etikoen barne lan egiten duena; gutxi eraiki, berreraiki, ez-eraiki edo deseraiki estrategietan lerrokaturik, arkitekturaren kontrako lerrokatzea baino, arkitektura eta krisiaz arduratzeko topaleku oparoa dela sinistuta. Biomaterialetan eta eraikuntza hondakinaren berreskurapenean lan handiak egiten ari dira, eraiki behar izatekotan, baliabideen kudeaketak testuinguruaren ezazgarri propioak jasotzeko sikiera.

Planteamendu erradikalagoak ere entzuten dira: bost urtean eraikin berri gehiagorik egingo ez bagenu? Edo hormigoia erabiltzeari utziko bagenu, nolako arkitektura egingo genuke? Agian horrela hegaldiko zenbait bidaiarik bidaiaren beharrezkotasunaz eta bidaiari egiteko beste moduetan pentsatzeko geltokia egingo genuke. ●



EUROPAKO PARLAMENTUA

Arma, tiro, pum eta sosak, bakearen alde

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ez dakit ze giro dagoen Bidasoaren hegoaldean, baina iparraldean behintzat badabilta "gerra" hitza gora eta behera. 2023ko abenduaren 31ko agiantzetan Macron presidentek "berrarmatze" hitza zazpi aldiz erabili izanarekin asmatzen ahalko genuen zetorrena. "Gerra ekonomia" bideratzeko beharrean omen gaude, eta hori izan dute hizpide martxoaren 21 eta 22an iragandako Europa mailako gailurrean. Definizioz, ekonomia eta industria nagusiki armagintzara bideratzeko erabaki eta planifikazio politikoa dugu gerra ekonomiarena. "Bakea nahi badugu, gerrarako prestatu behar gara". Europar Kontseiluko presidentearen hitzak dira. Logika arraroa, egia erran... baina, horretan gara, parekoari -gurean eta orain, konkretuki, Vladimir Putini- gerran sartzeko ideia saihestarazteko pario arriskutsua eginik. Berlingo Harresiaren eraistiaz geroztik, gerrarako finantzak eta ekoizpenak baita soldadu kopuruak ere ttipitu izanak erranarazten digu, agian, aldrebes, gerrarako prestatu ez nahiak dakarrela bakea... Baina, paso. Eztabaidak ez dauka lekurik: Europa mailako defentsa diruztatu, sendotu eta armatu beharrean gaude, bai ala bai, lubakiko usaina sekula sentituko ez luketen 27 agintariak horrela erabakirik. Horra Bruselako gailurrean harturiko zenbait erabaki: izozturiko Errusiaren ondasunen parte bat armagintzara bideratuko da; Europako Inbertsio Bankuaren finantzaketak armagintzara zabalduko dira; zor komuna asumitu eta Europak 100.000 milioi euroko mailegu bat egitea aipatzen dute ere.

Dena da geopolitika eta ekonomia. AEBetan Trump boterera berriz heltzeko mehatxua ere da Bruselaren armamenturako autonomiaren behararen gibelean. Europak Ukrainako gerrara hastapenetik bideratu armen erosketen %78 Europatik kanpokoei egin direlako -nagusiki, AEBei-. *Made in Europe* armak behar ditu Bruselak Kieventzat eta behar ordurako, beretzat. Gerra hasiz geroztik, 85.000 milioi euro bideratu dituzte EBk, estatu kideek eta finantza instituzioek Kievera -dela laguntza finantzario, militar ala humano gisa-, eta beste 50.000 milioi euro bideratzeko hautua egin du Bruselak otsailaren 1ean. Martxoaren 13an, Kieven armatzeko beste 5.000 milioi euro bideratzeko erabakia ere hartu du. Dirutza da. Ez izan kezkarik: inbertsio-fondoak eta enpresa pribatuak hor izanen dira, finantziario eta eskaera publiko horiek hartzeko prest. Dirutza egiteko aukera paregabea delako gerra (ekonomia). ●

100.000

Duela 100.000 urte inguruko gizakien fosilak aurkitu dituzte ikertzaileek Axlor aztarnategian (Dima). Zehazki, 10-12 urteko bi haurren eta heldu gazte baten hortzak dira, eta Iberiar penintsularen iparraldean ezagutzen diren zaharrenetakoak dira.

25

lagunetara murriztuko dute turista taldeetako gehieneko pertsona kopurua Donostian.

Apirilaren 10etik aurrera jarriko da neurria indarrean, eta isunekin zigortuko dute betetzen ez duen gidari turistikoa.

909

kexa jaso zituen Hizkuntz Eskubideen Behatokiak 2023. urtean. Horien %75 baino gehiago administrazioari loturiko zerbitzuei buruzkoak dira: "Urtero horma berdinarean aurka borrokatzen jarraitzen dute herritarrek".

"Susmoa dut gizartearen parte handi batean badagoela kezka ETB-rekin"

URTZI URKIZU, kazetaria
Telebista publikoari buruzko liburua idatzi du: *Txoria hodei artean, ETB lehen eta gero.*

EUSKAL IRRATIAK (2024-03-20)



"ADIERAZLE GUZTIEK IRAGARTZEN DUTE PORROT ESTRATEGIKOA ISRAELENTZAT"

DAVID HEARST

Middle East Eye hedabideko erredaktore burua

Hearsten hitzetan, Israel gogor ari da kolpatzen Hamas, baina hala ere, estrategikoki Israel galtzen ari da.

MIDDLE EAST EYE (2024-03-14)

"Elikadura osasungarriaren izenean zer kontsumo mota egiten ari garen aztertu beharko genuke"

LEIRE UDABE

Lakari proiektuko kidea.

EGONARRIA (ARGIA.EUS / 2024-03-21)



TEKNOLOGIA

Gorputzaren memoria



DIANA FRANCO

Mekanografia ikasi baduzu, gitarra jotzen, josten edo eskuz idazten, ulertzen duzu zure gorputzak zelan memorizatzen dituen zenbait jarduera. Gorputza eta adimena modu miresgarrian daude harremanduta, bat dira. Gizakiok sortu dugun teknologia eta honek gure gorputzarekin duen harremana aztertuta, bi mota daudela uste dut, elektronikarekin analogia eginez: eragileak (aldaketak sortzeko baliagarriak diren teknologiak) eta sentsoreak (ingurutik informazioa hartzen duten teknologiak). Bitartean, burmuinak, informazio eta esperientziatik (memoria) abiatuta, erabakitzea eta ondorioz eragitea baimentzen du.

Ohartu naiz badela gailuen garapen le-
rro bat ingelesez *wearables* deitzen dena, euskarara itzulita eramangarriak. Eramangarri hauen helburua batez ere da gure gorputzeko "sentsoreak" eraginkorrakoak egitea, gorputzeko informazioa jaso, kanpo burmuin batean prozesatu (aplikazioen jabearena) eta erabakiak hartzeko modu iradokitzailean informazioa bueltatzea.

Badirudi Apple bide hori urratzen ari dela eta eraztun bat diseinatu duela, zure konstante guztiak jaso, zure eskuen kokapenaren memoria garatu eta horiei lotuta informazio baliagarria eskaintzen dizuna. Beharbada gaixo dagoen jendearentzat edota ezintasun batekin bizi denarentzat baliabide interesgarria da. Baina garapen hauek ez dira sortzen gutxi batzuei saltzeko, merkatua behar dute.

Horregatik, eramangarriak bizitza osasuntsu baten behararekin lotzen dira, ez gaixotasunarekin. Beharbada oso ona eta osasuntsua da denbora guztian jakitea zentzuk diren zure taupadak, zenbat ibili zaren, zein den zure temperatura... baina beharbada, gaixo baten antzera gure gorputza denbora guztian neurtzeak ez al gaitu ustezko gaixotasun baten bila jartzten, denbora guztian? Gure gorputzarekiko halako beldurrez jokatu beharrean, gizarte hipokondriako bat sortu beharrean, beharbada arreta handiagoz entzun beharko genuke gure gorputzaren memoria, gailu baten esku jarri beharrean. ●



BERRIA

Agerraldi psikotikoa zuen gizon bat hil da, Ertzaintzak "bortizki esku hartu" ostean

ERREDAKZIOA

Drogen eraginez agerraldi psikotiko betean zen 36 urteko gizon batek Poliziaren laguntza eskatu zuen Astigarragan, pasa den otsailaren 2an. Lagundu ordez, Ertzaintzak gizona bortizki tratatu zuela eta anbulantzia sartu zutenerako hilda zegoela salatu du haren familiak. Ertzainek esku hartu ordez anbulantzian eraman izan balute, Eneko Valdés oraindik bizirik izango zatekeela dio familiak. Auzitegian salaketa jarri eta Arartekora ere jo dute.

Kokaina hartu ostean, delirio eta paranoia egoera batean sartu zen Valdés: tiro egiten ari zitzaizkiola pentsatu eta laguntza eskatzen hasi zen, izututa. Bizilagunek galdetu zioten ea Polizia deitzea nahi zuen, eta baietz. Astigarragako udaltzainak gerturatu ziren eta lasaitzen saiatu ziren, segituan anbulantziara jaitsiko zutela esan zioten. Udaltzaingoaren lanarekin eskertuta dago familia.

Orduan, ertzainak agertu ziren eta egoeraren kontrola eurek hartzen zutela adierazi zuten. Berehalako erantzunaz arduratzen den Ertzaintzaren Bizkor unitateak atarian esku hartu zuen, eta ordura arte laguntzen ari zen erizain bizilagunari esan zioten

aldentzeko. Berdina esan zioten Eneko Valdésen bikotekideari, lanetik iritsi zenean. Handik gutxira, Valdés anbulantziara jaitsi zuten, ohatilan etzanda, gelditi. Familiaren bertsioak dio ordurako hilda zegoela Valdés (aipatu bizilagun erizainak hilda zegoela susmatu zuen eta anbulantziako osasun-langileei entzun zien ez zuela pultsurik), baina Ertzaintzak dio anbulantzian hil zela.

Lesio mota asko zerrendatzen ditu autopsiaren aurretiazko txostenak: zauriak, hematoma, urradurak, eritemak, ekimosia, hemorragiak... Hiru saihets apurtuta eta beste bi lesionatuta ere ditu gizonak. Familiak galdekaturako adituen arabera, Taser pistolak eragindako markak ere izan daitezke Valdésen gorpuan ageri direnak. Ertzainen arabera, gizona immobilizatu baino ez zuten egin, eskuak eta hankak helduz, "ekintza deskontrolatu eta biolentoak saiheste aldera".

Zerbitzu Forentseak oraindik ez du guztiz argitu heriotzaren kausa, eta horretarako proba gehiago eskatu ditu, toxikologiko eta histopatologikoak alde batetik, eta egin zen esku-hartze eta artaren ingurukoak, bestetik. ●

ASTE POLITIKOAREN KRONIKA

Orokorkerrien Euskadi

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Hilabete baino gutxiago falta da hauteskundeetarako eta bi aste baino ez kanpaina ofizialki abiatzeko. Lehen bi kolpe kanonikoak eman dituzte dagoeneko. Bata administrazioak, egin baitute zozketa, hauteslekuetan eguna botako duten herritarrena; eta alderdi politikoek bestea, 48 orduko kola egin da, argitaratu baitituzte hautagaien zerrendak. Eta horrela igo dute beste mar-txa bat elekzioen makinarian.

Lokatzerietan sartzen hasia da Euskal Erdiko politikagintza instituzionala, baina segitzen dute oraindik beraien burua aurkezteko lanetan. Gizaker inkesta-etxearen arabera, lehendakari-gaiak nortzuk izango ziren jakin zenean baino dezente ezagunagoak dira orain bai Pradales eta bai Otxandiano. Baina ez horrenbeste, antza. Pradalesek, esaterako, bideo labur batez galdegin du ea "nolakoa" den "zure Euskadi". Bideo bertikala, zuri-beltzean, banka-entitate ezagun batek eginiko anuntzioen tankerakoa... Gazteengana heltzeko? *Late-night* formatuko podcastetan parte hartzen hasiko dira laster, Pedro Sánchezen haritik, antza *La pija y la quinqu* saioan agertzeak mesede egin baitzion hari.

Pradalesen planoen osagarri ipini dituzte beste irudi hauek: ortuan lanean aritzeko katiuskak, hazi bat ereiten ari diren eskuak, ordenagailua teklatzen beste batzuk, arrantzale bat, tailer bateko makinak, haurra besoetan hartuta daukan emakumea... Erreferentziak nonahi lehen eta bigarren sektoreari, enpleguari, aberastasunari, eta, era esplizituan, bizikidetzari eta elkarbizitzari ere bai.

Osasuna aipatu ere ez du egin, ez bada "ongizatea" esanda adar hori ere zeharka ukitu nahi izan duela. Ipin zezakeen hor fokua, baina ez du horrela egin, eta zer pentsa ematen du horrek;

izan ere, badirudi Osakidetzaren osasunaz gutxi hitz egiteko asmoa duela EAJk. Kanpainari begira-edo, baliteke egungo Jaurlaritzarekin ez duela talka gehiegirik egin nahi *indar berri* jeltzaleak.

Astearen hasieran hitzeman zuen Pradalesek, lehendakari balitz, familia-medikuaren txanda 48 orduko gehienezko epean ezarriko lukeela. Baina hementekan hilabete atzera eginda ohartzen da bat egungo Osasun sailburuak otsailaren hasieran "konfirmatu" zuela, pleno batean, muga horren azpitik diharduela Osakidetzak. Areago, Osakidetzak ondo "errekuperatzen" ari dela zioen Sagar-duik, jarritako helburuak betetzen. Adierazpen horiek ere testuinguruan jarri behar dira; Pradalesi zeharka erantzutea zuen helburu, hark egun batzuk lehenago aldarrikatu baitzuen Osakidetzak

"hobetzeko" premia. Badirudi katramilatu direla norbere egoak defendatzeko nezesidadeak.

Testuinguru trabatu honetan aurkeztu du EH Bilduk bere osasun politiken ardatza ezarriko duen proposamena. Beste hainbat konturen artean, arreta pizten du pertsonal politikaren eraldaketari buruzko bide-orriak. Argi dio ez zaiela zuzena iruditzen osasun langileek publikoan eta pribatuan lan egitea aldi berean, eta are gutxiago ardura potoloagoak dituztenek. Proposamenak, ordea, ez ditu lerroburuak hartu –*Diario Vasco*-n baino ez-. Kasulitatea ote? Zergatik utzi bigarren plano batean? Krispazioa eragin eta mediku horien boto-galera ekarriko lukeelako, akaso?

Guztiaren gainetik, azken asteak zerbait eman badu, titular berreste ariketa bat izan da: EitB Focus inkestaren arabera, legebiltzarkidetan, berdinketa egon daiteke EAJren eta EH Bilduren artean. Eta letra xeheari begiratuta, argigarria hau: koalizio gobernurik hautatzekotan, gehiengoak EAJ eta EH Bilduren arteko aliantza lehenetsiko luke.

Krispazio apur bat behar du Euskal Erdiko hauteskunde zikloak, fanatikoek, bestela, Kataluniara begiratuko dutelako. Osakidetzak "hobetzeaz" mintzo dira bi hautagai printzipalak, baina piko apur bat egiteko dago zaurian. Aldaketa gerta badaiteke, ilusioa behar du jendeak; eta ilusioa izateko, errealki aldaketa erreformista bat gerta daitekeenaren oinarriak behar dira. Hau da, proposamen zehatzak eta promesak. Eta, ezinbestean, konbultsio batzuk eragin beharko lituzkete hainbat ideiek. Ez dirudi inori komeni zaionik. Boterera heltzeko lehian, errazagoa da orokorkeritan jaus-tea; eta, era berean erraza da, horretarako aukerarik igusten ez duzenean, tinko mantentzea gogortasunean. ●



CAMPI BIENZIOKO GKN FABRIKAN BATU DITUZTE LANGILE BORROKA ETA EKOLOGISMOA

2021eko uztailaren 9an jaso zuten kanporatze abisua Campi Bisenzioko GKN lantegiko 422 langileek. Biharamunean berean abiatu zuten fabrikaren okupazioa eta orduz geroztik bertatik dabilta borrokan, deslokalizazioaren aurkako borroka zena bestelako industria eredu baten aldeko alternatiba bihurturik. Enpresa pribatua GKN For Futur kooperatiba bihurtu dute eta autoetarako piezen ekoizpena alde batera utzirik, karrodun txirrindulak eta mineralik gabeko panela fotovoltaikoak ekoizteko xedearekin dabilta. Trantsizio ekologikoaren iparrorratza esku artean eramandako langile borroka dugu Campi Bisenziokoa.

JENOFA BERTOKOIRIGOIN

Florentzia ondoko Campi Bisenzioko GKN lantegiaren deslokalizazioaren eta bertako 422 langileen kanporatzearen abisua zekarren 2021eko uztailaren 9ko gutuna bidaltzerakoan, ez zukeen horrelako erantzunik irudikatuko Melrose Industrie jabeak. Inbertsio fondo britainiar horrek 9.500 milioi euroren truke eskuratu zuen GKN taldea 2018an, eta hortik gutxira abiatu zituen Europako hainbat lantegiren deslokalizazioak. Mina indar bihurtu eta norabidea markatu zuten gutunaren biharamuneko lehen asanbladan: "Negarretan gaude, milaka istorio humano dauzkagu kontatzeko, baina ez da gaurko gaia. Ez gara etxera itzuli beharrean diren langile behartsuak. Duintasuna gara, harrotasuna eta erresistentzia. Mesede egin eta lotu zaitezte borrokarat. Oldartu gaitzen".

Lantegian gelditzea erabaki eta okupazioari lotu zitzaizkion berehala, eta orduz geroztik bertan segitzen dute, gauz zein egunez. Collettivo di Fabbrica –Lantegiko Kolektiboa– taldea dabil borroka aitzina eramaten, ingurukoen babesa eta elkartasuna ezinbesteko indar emaile dutela: makinaren erreku-perazioa blokeatzeko xedez, garraioan

dabilta nazioarteko kamioiei herrira sartzeko debekua jartzen dien ordenantza izenpetu zuen 2021eko udan Campi Bisenzioko Herriko Etxeak; deslokalizazioak mugatzeko legedi berri bat idazten aritu zen jurista militante talde bat; milaka lagun batzen dira antolatutako manifestazioetan; herritarren partetik 170.000 euroko diru ekarpena jaso dute, eta abar.

2021eko irailean, Justiziak arrazoia eman eta kanporaketak ezeztatu zituen. Hortik hiru hilabetera Francesco Borgomeo enpresaburu ezagunak lantokia erosi izanak ez zuen, ordea, langileen egoera konpondu: aktibitate ekonomikorik ez zen berriz abiatu, eta soldatak ere ez zitzaizkien gehiago iristen. Collettivo di Fabbrica antolatutako segitu zuen eta 2023ko uztailaren ekintza burutu zuten, desesperazioz eta determinazioz, Florentziako San Niccolo dorrean, ondoko mezua entzunarazteko: "Gurea ez da hemen hasten, bi urteko borrokaren eta soldatarik gabeko zortzi hilabeteen ondorioz heldu gara honaino. Sistemaren parte direnek diote zeozer egiteko indar gabean direla, baina errealitatean, daukaten konplizitatea ezkututzen dabilta. Gure borroka beste modu batzuetara

antolatzen segituko dugu, ideia berriak proposatu eta gure oinarritzko eskubi-deak errespetarazita".

Italiako itzulia burutu zuten borroka zabaltzeko asmoz: "Gure borroka kolektiboa da, beste lantegietara joan gara, LGTBQI+ kolektiboengana hurbildu gara, baita ekologistez ala besteez ere". Eskuin muturraren aurka iazko abenduaren 3an Florentzian egindako manifestazioan zein hilabete batzuk lehenago Bolonian egindako Fridays For Futur klimaren aldeko topaketetan, borroka esparruen arteko aliantzak etenik gabe garatzen dabilta.

Hori dugu seguruenik Collettivo di Fabbricaren berezitasun azpimagarriena. Funtsean, borroken konbergentzia horretatik loratu da lantegiaren geroa: lana berriz hartzekotan, benetako trantsizio ekologikoan txertaturiko ekoizpen bat bermatzeko izatea erabaki zuten. Ordura arte autoentzako piezak ekoizten zebiltzanak hausnarrean hasi eta bi produktu identifikatu zituzten: banaketak egiteko karrodun txirrindulak eta mineralik gabeko plaka fotovoltaikoak. Zehazkiago, litiorik, siliziorik eta kobaltorik gabeko panelak ekoizteko jakintza patentatu berri du SemperAmpere en-

presa italiar-alemandarrak. GFF –GKN For Futur– kooperatiba sortu eta ekoizpenaren antolaketaren eta langileen formakuntzaren fasean sartuak dira.

TRANSIZIO EKOLOGIKOAREN ERRONKA BERE EGINDA

"Fabrika batera zoazelarik ez dizute galdetzen zer ekoiztu, baina hautatzeko aukera emanez gero, produktu ekologiko baterantz hurbildu zaitezke, estraktibismoan, erregai fosiletan edota armetan oinarriturik ez den ekoizpen baterantz. Klimaren aldeko mugimenduarekilako konbergentzia ezinbestekoa ukan dugu kolektiboko langileen sentsibilizaziorako", dio Massimo Barbetti langileak.

Lesmondedutravail webguneko *Ce que nous enseigne la lutte pour une reconversion industrielle durable de l'usine GKN en Italie* (Italiako GKN lantegiaren aldaketa industrial iraunkorraren aldeko borrokaren irakaspenak) erreportajea interesgarria da borroka horren berezitasunei begiratzeko orduan. Hain zuzen, ohituegiak gara industriaren sektoreko langileak eta ekologistak parez pare jartzen, elkarren aurka doazen proiektuak balituzte bezala. Izan daiteke, baina beti ez da, eta Collettivo di Fabbrikoen adibidea dugu horren froga. Aditu eta arituz osaturiko komite zientifiko bat eta langileen kolektiboa aritu ziren birbideratze industrial horren diseinatzen.

Artikuluaren irakurri daitekeenez, langileria zentroan ematean da apurtzailea prozesua. Hasteko, gogoetaren eta erabakien oinarrian kokatzen dutelako langileria, eta gainera, langile-jakintza eta jakintza zientifikoa hein berean jartzen dituztelako –"langile-jakintza argira ekartzea, ikasgela batetik edota mundutik bereizirik laboratoriora batetik etorri beharrean, eguneroko esperientziatik datorren jakintzan



HIRU URTEKO BORROKA LUZEA Ilusioz eta nekeziak beterikoa den borroka luzea eramaten dabilta GKN fabrikako langile ohiak. Borroken arteko konbergentzia eta inguruaren elkartasuna dituzte aitzina egiteko indar iturri.

oinarrizteak ematen digu aukera denbora luzez baztertu diren ezagutzen eta sistemen arteko harremanak birpentsatzeko; behingoa paradigma tekniko-zientifiko produktibo baten mesedetan aritzeari eta etekinaren logikan oinarritzeari utziz"-. Langile ikuspegiari txertatzen diote transizio ekologikoarena: langileen babesa eta ingurumenarena hein berean kokatzen dituzte, eta ekoizpena behar sozialaren arabera finkatzen dute –"soilik interes kolektiboaren arabera ekoiztuz tratatu dezakegu ingurumena modu iraunkorrean, ez da gugandik kanpo dagoen kategoria abstraktu gisa kokatzen, baizik eta eguneroko bizitza garatzeko testuinguru material gisa"-. Ikuspegi dekoloniala ere nabarmentzekoa dute: beraiena ekoizteko

Hegoalde Globaleko herrialdeak bipiltzeko eta izorratzeko joera neokolonialista baztertu nahi izan dute.

LANIK eta soldatarik gabe pasatako tarte luze horretan, batzuk abentura utzi behar izan dute, pobreak horretara beharturik, eta gaur egun 150 bat dira ekoizpen berriari lotzeko aukerarekin. Aitzina doaz, botere publikoak interpelatuz eta herritarren diru ekarpenak jasoz. Badakite aintzindari izan daitezkeela, oinarritzat hartu dugun artikuluan irakurri daitekeenari segi, ondokoa gauzatzen dabilzalako: "Enpresa handi baten berreskurapena, autogestio amets bat eta 'kapitalismo berdearekin' erabateko kontraste eta oposizioan dagoen ekoizpenaren birdefinizioa". ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Jokin Pantxeska Etxebarria

GERRAKO UME, AITAITA



HIRU ALDIZ ESAN DUTE GORRIA NAIZELA, KOMUNISTA!



Irisarriko herrigunera sartu orduko, hantxe, etxe baten atarian, ikurrina eta estelada. Jokin Etxebarriaren bizitokia duzu. Gerrako ume izandakoa, hamaika ibilera –eta hamaika baino gehiago ere bai–, han eta hemen egindakoa. 92 urtek nahi beste bizitzeko aukera ematen baitute.

 MIEL. A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Ez duzu nolanhiko izena, salatu didatenez: Jokin Pantxeska! Errepublikan balio zuen, Francoren diktadura garaian ez...

Baina beti izango naiz Jokin Pantxeska, horixe da nire izena. Jokin Pantxeska Etxebarria Ugarteburu, Erbitxunekoa. Erbitxu zen, izatez, gure aitaita-amamen baserria Mungian, eta gu beti izan gara “Erbitxunekoak”. Ni, “Jokin Erbi”; nire anaia, “Iñaki Erbi”... Sortzez hiru nebarreba izan ginen, mutil biok eta Gotzone, hirurak Basaurin jaioak. Aita Mungiakoa zen, ama, Bilbokoa, beraren gurasoak Markina-Etxebarriakoak.

Espainiako Gerra Zibilaz gero, kito zure “Pantxeska”. Debekatu zuten izena.

Gerra Zibila? Hura ez zen zibila! Tiroak

han eta hemen, gerra hark zibiletik ez zuen ezer eduki! Eta, gehiago, ez zen gerra izan, hura altxamendu militarra izan zen. Eta horrela esan behar da. Estatu-kolpea izan zen! Gero, nik lau urte nituela, aita pausatu zen [hil], eta ama hiru umeokin gelditu zen. Eta gerla! Eta jendea ihesi hasi zen, eta gu ere bai. Basauritik Bilbora egin genuen, Portuko Markesaren kaleko 14. zenbakira [“Indianoaren etxea”]. Hortxe egon ginen. Gero, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, umeak trenean sartu, eta heldu ginen Santanderrera. Magdalenako jauregi famatuan egon ginen.

Santanderretik nora edo nora joateko asmotan...

Ez genekien nora. Itsasontzia zen Bretainiakoa; ez Britainia Handikoa, bretoia baizik. Ikatz-ontzia. Eta La Palissera era-

man gintuen, portura. Eta handik hurbil, Bordelera. Lehenengo gauza, bakunatzea izan zen. Gero, gu umeok sailkatzea. Han inoren izenak ez zuen ezertarako balio. Hartu gintuzten, eta tamainaren arabera banatu gintuzten: batzuk alde batera, besteak bestera, batzuk Belgikara, beste batzuk Errusiara edo Ingalaterrara... Ni, esate baterako, Errusiarako jarri ninduten, eta eskerrak Iñakiri [anaia] ez nintzen joan Errusiara. Hara joan izan banintz, orain Putinen ministroa izango nintzatekeen. Kar-kar...

Zer gertatu zen, bada, zu Errusiara ez joateko?

Iñaki zen zaharrena, ni baino hamar urte nagusiagoa zen, eta gure amak garbi esana zion: “Zuk zaindu Jokintxo, ez utzi bakarrik momentu bat ere!”. Bordeleko



Jokin Pantxeska Etxebarria

BASAURI, 1931



Guk baino lehen, berak galdetu digu: “Zein egunetan jaio zen Pasionaria?”. Eta guk ez baitugu jakin, berak erantzun du galdera: “Abenduaren 9an. Egun berekoak izan gara biok!”. Izen sabindarrak salatzen du, eta, ez alferrik, Francoren altxamendua baino lehen, Basauriko udal zinegotzia izan zuen aita, EAJkoa. Laneko bizian kontularia izan zen gure Jokin Pantxeska, eta, harrezkero, sotatarrentzat egin zuen lan. Miarritzetik Bilbora eta Bilbotik Miarritzera bizi izan zen, abertzale, eta direnak eta ez direnak, “denak” ezagutu ditu. Seaskako fundatzaileetakoa, eta Miarritzeko Athletic Clubeko presidenteorde, hil arteraino. Eta, tartean, idazterik ez dagoen hamaika saltsa gizen.

Saint-Jean geltokian geunden, eta ni Errusiarako trenean sartu ninduten. Iñaki, berriz, alde batera eta bestera ibili zen trenean, nire bila, ikusi ninduen arte! Orduan, ni hartu eta atera ninduen trenetik. Zer egin behar nuen nik, bakarrik? Bost urte nituen! Hurrena, Baionara eraman gintuzten, eta handik Donibane Garazira, Ziuadela-ra. Ehunka ginen umeak, Meñakakoak, Jatabekoak, Gatikakoak... Eta gu zaintzen, izeko Kontxa! [Etxebarria Oleaga] Eskerrak hari.

Donibane Garaziko Ziuadela berri zuzena duzu, hortaz.

Bai. Ez dakit zenbat denbora egongo nintzen han. Umea nintzen, eta ez nuen egunen ez egutegi berririk. Baina gogoratzen naiz ezagutu nuela Fortunato [Unzueta] jauna, Bilboko Begoñako parrokiako arduraduna. Bera ere ihesi joan zen. Gero, Donibane Garazin istripu bat izan nuen, atetzar handi baten kontra jota, eta hortzak apurtu nituen. Erizaindegira eroan ninduten, eta han Markinako mutil baten lagun egin nintzen. Seme bakarra zen, eta famatua gure artean, euliak harrapatzen abildade handia zuelako. Bazkaltzeko garaian, berriz, jaten ematen zigutena gustatzen ez zitzaigunean, komuneko zulotik behera botatzen genuen zaintzaileak begira ez zeudenean. Adibidez, niri ez zitzaidan arroz gustatzen, baina Iñakik indarrez janarazten zidan, eta ni haserre.

Zeure ondoan zenuen Iñaki. Eta arreba, Gotzone?

Lehenengo, hiruok Donibane Garazin egon ginen. Iñaki beti nirekin egon zen, baina Gotzone Miarritzera eraman zuten laster, lanera. Eta esan dizut, gurekin zen izeko Kontxa. Baina hor ama aipatu behar dut. Ama jakituna zen, mitinlaria, eta exiliatuta egon zen Normandian. Gero, nik istripua izan eta gero, Ilbarritzera [Bidarte] eraman ninduten, Miarritzeko mugan. Kasino-hotel handi bat zegoen han, Stavinskyk egindakoa [La Roseraie].

(...)

Denboragarrenera, Mungiara etorri ginen, aitaita-amamen etxera. Baina hona etortzeko, [Santiago] zubiaren erdian jarri gintuzten gu ume denok. Sei-zazpi urte izango nituen nik. Espainiako kontsulak Iñakiri esan zion gu biok banatu egingo gintuztela: 18

urteko neska-mutilak batetik, eta txikiagoak, berriz, bestetik. Iñaki 18 urte bete berria zen, baina kontsulak esan zion Iñakiri: “Zu ez mugitu, zu zeure anaiaren ondoan beti!”. Eta 18 urtekoak bereizteko garaian, Iñaki bertan geldi egon zen! Baina Mungiara baino lehen, Erresistentziari ere lagundu genion guk.

Erresistentziari lagundu?!

Bigarren Mundu Gerraren garaian, Getariako kasinon sartu gintuzten errefuxiatu guztiak. Behin, Frantziako Polizia etorri, gizona guztiak ikusi, eta Belgikako mugara eraman nahi izan zituen, alemanen aurreratzea galarazteko. Debekatua zen handik irtetea, baina ni umea, eta hara eta hona ibiltzen nintzen, jolasean. Herrian bazen familia bat, plazan gozotegia zeukana, eta esan zidaten: “Zoaz halako lekura, eta esan kasu emateko, jendarmeak kasinon dabiltzala gizon guztiak arrestatzen, frontera eramateko!”. Errugbiko baloia izan nintzen!

Errugbiko baloia?!

Bai, batzuek eta besteek erabili ninduten. “Juanitaren semea” nintzen denentzat, eta gauza askotarako baliatzen ninduten.

Etxera itzuli zineten arte, nonbait.

Baina ez ginen Basaurira itzuli, han inor ez zegoen-eta. Esan dut aita pausatua zela, 1936ko urriaren 10ean hil zen, kolpetik. Medikua, Mungiakoa, lehengusua zuen, Goiarrola Etxebarria, baina gerra tartean zela, ezin izan zen gure aita artatzera joan. Gure ama ondoan zeukala hil zen aita. Amak ere Santanderetik La Palissera egin zuen. Errefuxiatuei laguntza ematen zien taldeetako jendea ezkertiarra zen. Hala-ko zentro batean eduki zuten ama, eta, behin, komentarioren bat egin zuen zerbaiten gainean. Kultura handikoa zen gure ama, eta zentro hartako arduradunak-edo ondoan hartu zuen, eta eraman zuen Normandiara, Orne departamentuko herri batera, Parisetik ez urrun. Gero, Gotzone ere hara joan zen, amagana.

Ama eta Gotzone, Normandian, zuek bi anaiok Ipar Euskal Herrian...

Bai. Ezagutu egin behar zenuen Gotzone! Normandian jaten zuena ez zuen oso gustuko, nonbait, eta kantatzen



zuen “... aquellas las de Santurce, tenemos para comer...”, jateko sardinak zituztela, alegia, eta jendea txaloka. Xelebrea, Gotzone. Eta zenbat lan egin zuen gero ere!? Erizainez jantzi, gurutze gorria soinean, eta zenbat jenderi lagundu ote zion ihes egiten Bilboko aireportutik!? Gure amamak beti esaten zuena: “Erein, batzeko!”.

“
5 urte nituen eta Errusiarako trenean sartu ninduten. Iñaki anaia, berriz, alde batera eta bestera ibili zen trenean, nire bila, ikusi eta atera ninduen arte!”

Bordele, 1937

gamiztarrak. Eta alargundu zenean, haietako batekin ezkondu zen bigarrenez. Kontatzen zuen, gerra denboran, tropa falangistak bertan, eta etxeko txerria, behia eta astoa-eta hartu, eta Mungiatik Gatikarantz eskapo joan behar izan zutela, tropak gibeletik zituztelako.

Orduan hasi zinen eskolara, Mungian?

Ez, ni lehenengo eskolara Getarian eta Miarriritzen hasi nintzen. Gero, Mungian segitu nuen. Behin, elizan, goiko saloi batean, bandera espainola artaziekin kax-kax-moztuta agertu zen. Eta Ekintza Katoliko Espainoleko presidentek Gotzone jo zuen susmagarri. 17 urte izango

zituen Gotzonek, baina gerra-kontseilua egin zioten! Kantabriarra zen Ekintza Katoliko Espainoleko burua. Ondo markatu “espainola”, hala zen eta. “Puri kantabriarra”, txikia zen, beneno hutsa!

Gerrako umearen historia-istorioek ez dute amaierarik... Zertan egin duzu lan zeure bizian?

Lan? Nik diru asko irabazi dut, baina lan egin barik!

Kar-kar!

Kontrabandista! Hiru hizkuntza nekizkien, eta ibiltzen nintzen hemengo bi aldeetan!

Serio, Jokin! Zertan egin duzu lan?

Barku-administrazioan. Kontabilitate lana egin dut sotatarrentzat. Gure amak haientzat egin zuen lan, Miarriritzen, farroaren ondoko lehen etxean. Sartuko naiz politikan?

“Politikan sartu”? Zer esan nahi duzu? Hitz egingo dut politikaz?

Bai, bada!

Baina esango dudana ez idatzi.

Hortaz, idatzi daitekeena kontatu...

[Deustu. ETAko kideak. Neguriko Itsas Kluba. Armak. Txomin Iturbe. Kontrabandoa. Otsondo...]
 Stop, e! Ezin da idatzi!

Idatzi daitekeenera itzuliko gara. Nola sortu zen Seaska?

Iker Gallastegi! Bera izan zen! Eta, harekin batera, Migel Muñoa, ni... Boisera ere joan ginen!

Zeuzara, beraz, Piarres Larzabalen “Etxebarria”. Anai Artean (Txalaparta, 1996) liburuan kontatu zuen

HERRITIK HERRIARENTZAT

NATURA
ONDAREA
AUZOLANA
EUSKARA
KIROLA



LEITZA



WWW.LEITZA.EUS






Boisera egin zenuten bidaia. 1972ko ekainaren hasiera zen.

Seaska eta Anai Artea, bi organizazioak joan ginen, dirua batzera, Boisen euskal besta zelako. Seaskaren izenean ginen Miguel Muñoa eta biok, eta Anai Arteatik, berriz, Txillardegi eta Anjel Arregi. Baina han, gu komunistak ginela zabaldu zuten. Pedro Beitia donostiarraren kontua izan zen; PNVkoa izan zen bera. Denbora hartan inor komunista zela esatea oso larria zen. Joe Eiguren eta Julio Bilbao izan ziren gurekin hitz egin zuten euskaldun bakarrak. Gainerakoek, agurtu ere ez gu! Etorzeko bezperan-edo, pilota partida jokatu genuen: Muñoak eta biok, hango biren kontra. Giroa apur bat aldatu zen orduan, ikusi zuten ez ginela hain okerrak. Eta hurrengo egunean gehiago aldatu zen gure aldeko giroa.

Meza! Piarres Larzabalek kontatzen du...

Bai. Anjel Arregi oso elizkoia zen, ni ez, baina Makean bizi izan nintzenez meza-tara joaten nintzen, eta banekien elizako kantuak kantatzen. Eta joan ginen Boiseko meza horretara. Euskal meza izan zen. Eta besteekin batera kantatu genuen, eta, orduan, jendeak: "Baina zelan izango dira, bada, komunistak, elizako kantuak kantatzen dituzte-eta!". Orduantxe kanbiatu zen dena, eta hasi ziren esaten "Etorri hona!" eta "Goazen hara!". Baina berandu zen, hurrengo egunean itzuli ginen. Denak lagun egin ginen, baina dirurik ez genuen ekarri... Hiru aldiz esan dute gorria naizela!

Gorria, komunista?

Bai, hiru aldiz! Lehenengo, Donibane Garazin geundela, txikerretan, Frantziako Euskal Pilota Federazioaren fundatzaileak Ziuatadelan geunden denak gorriak ginela esan zuen. Gero, alema-



nak etorri zirenean, jainkotu egin zuten gizon hura, kolaboratzaile izan zen eta. Ostean, alemanek Frantziatik alde eginda, kartzelara sartu zuten, kolaboratzailea izan zelako! Gorria naizela esan zuten, bigarren biderrez, Boisen. Pedro Beitia gu komunistak ginela esan zuen. Hirugarren biderrez, Mungian, Poliziaren fitxan ipini zuten: "Ez zaio ideia politikorik ezagutzen, baina giro gorri-separatistan hezi dute". Harrapazak hori! Eta hartu fitxa eta [Bilbo] Komertzio Eskolara, Gabriel Arestirekin.

Gabriel Arestirekin?

Bai. Kurtso batekoak izan ginen. Oso lagunak. Elkarrekin ematen genuen izena eskolan. Ikaragarria zen Aresti. Euria ari zuenean, kirol-zapatilak jantzita etor-

tzen zen; eguzkia zenean, botak jantzita! Atsedenean futboleko jokatzeko genuen, eta Aresti botak jantzita, nagusi zen! Kar-kar... Bere etxean ere egon nintzen.



Ikaragarria zen [Gabriel] Aresti. Euria ari zuenean, kirol-zapatilak jantzita etortzen zen; eguzkia zenean, botak jantzita!"

Berarentzat ez zen erraza izan: gurasoak frankistak izan ziren. Amak Bilboko udaletxean lan egiten zuen; aita, monarkikoa zen; anaia [Juan María], falangista. Gabriel, etxeko ardi beltza!

Hiru aldiz esan dizute gorria zarela. Komunista zara?

Komunista ez, ni independentista naiz! Horrela esaten zuen Gotzonek ere. Agustín Ibarrola kartzelatik atera zenean, etxean hartu zuen Gotzonek. Ibarrola Alderdi Komunistakoa zen, baina Gotzone ez. Independentista zen. Berak esaten zuen! ●

Zestoan ere euskararen alde!



ZESTOAKO
Udala

www.zestoa.eus





‘La xarxa ultra’



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

ARGIArekin azken kolaborazioa egin nuenetik lau hilabete igaro direnean, testu honen bidez nire iritzi-artikuluei berriro heldu diet, baina azalduko dizuet zergatik alde egin dudan denboraldi honetan aldizkari maitagarri honen orrialdeetatik.

Otsailaren 20an *La xarxa ultra* (Ultra sare) dokumentala estreinatu zen, TV3ko (Kataluniako telebista publikoa) Sense Ficció programarako egin dugun ikus-entzunezko proiektua. Gizartearen gehien-goarentzat kezkarria bezain ezezaguna den fenomeno bat irudikatzeke enkargua genuen: nola sartzten den ultraeskuina sare sozialen bidez gazteen bizitzetan.

Kataluniako Centre de Estudis de Opinió (CEO) zentroak egindako makroinkestaren arabera, Z belaunaldiko gazteen %9 (15 eta 25 urte bitartekoak, gutxi gorabehera) eskala ideologikoko 8-10 artean dago, hau da, eskuin muturrean. Gehienak gizonezkoak dira, eta nahiz eta kopurua anekdotikoa iruditu, kontuan izan behar dugu ehunekoak aurreko belaunaldikoaren ia bikoitza dela.

Joera berria markatzen du datu horrek, eta gazteen boto-portzentaje handi bat ultraeskuineko aukerentzat dela adierazten du. Joera horrek dagoeneko erakundeen taula politiko-instituzionala baldintzatzen du munduko leku askotan, eta badirudi ez duela goia jo. Modan al dago *fatxa* izatea? Zergatik ikusten dute gazte batzuek ultraeskuina sistemaren aurkakotzat?

'Fatxatuber' deiturikoak Javier Negreren Estado de Alarma bezalako atarietan sortzen diren polemikez elikatzen dira, gorroto diskurtsoak inpunitate osoz zabaltzeko

Erantzunak ugariak dira, baina Espainiako Estatuan nabarmentzekoa da eduki sortzaile jakin batzuek eta albiste faltsuak sortzeko plataformek izan dituzten bultzada eta ospea. Are gehiago kontuan hartuta ikerketa guztiek berresten dutela sare sozialak direla belaunaldi berriek informatzeko gehien erabiltzen dituzten kanalak, eta ez hedabide konbentzionalak.

Fatxatuber deiturikoak, hala nola Infovlogger edo Libertad y lo que Surja, Javier Negreren Estado de Alarma bezalako atarietan sortzen diren polemikez elikatzen dira, eztabaida politikoa intoxikatzeke eta gorroto-diskurtsoak inpunitate osoz zabaltzeko. Plataformek oso eginkizun garrantzitsua dute,

izan ere, iritzi misogino, homofobo edo arrazistak zigortu beharrean, algoritmoek gatazka sortzen duten edukiak sustatzen dituzte, eta, beraz, erabiltzaileak sarean mantentzea eta argitalpenak monetarizatzea lortzen dute.

Sare konplexu honen gailurrean, Vox eta PP bezalako alderdiak aurkitzen ditugu. Publizitate instituzionala kontratatuz eta aurrekontu partida propioak emanez, interneteko ospetsu berri hauek finantzatzen dituzte, arreta desbideratzeko eta agenda mediatikoa euren aldeko tokietara eramateko.

Dokumentala egiteko baldintza bat zegoen: protagonistek hitz egitea. Horregatik elkarrizketatu genituen eskuin muturreko nerabe asko eta lehen aipatutako hiru sortzaileak. Erronka handia zen, nola eman ahotsa beren diskurtsoak sustatu eta zuritu gabe? Ez dizuet *spoiler* egingo, baina orain arte publikoak eta kritikak ahalegina goraiatu dute.

Gure ondorio nagusia da –ikusle asko izan dituela kontuan edukita– lortu dugula agerian uztea guri partida irabazteko erabiltzen ari diren estrategietako bat. Honezkero, jada ez zen bideragarria fenomenoari ezikusiarena egitea haren hazkundera saihesteko. Gonbidatzen zaituztet dokumentala ikustera, zeuon ondorioak ateratzera eta horren arabera jokatzera, gure gazteen artean gorrotoaren hazia loratu ez dadin. Oraindik garaiz gabilta. ●

Mezu subliminalak



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Mezu subliminalak hartzailearen kontzientziarentzat hautemanezinak diren noranzko bakarrek komunikazioak dira, eragina izan dezaketenak haren nahimenean, portaeran edo pentsamendu kontzientean. Horregatik, mezu subliminal eraginkor bat izate hutsa manipulaziotzat har daiteke: eskuhartze ez zilegizkoa besteren jardunean, ezkutututako bitartekoak direla medio.

Giza komunikazioaren eremuan, mezu subliminalek nolabaiteko lotura dute ez-hitzezko komunikazioarekin, gure solaskidearen aurrean gaudenean. Ez-hitzezko komunikazioaren barruan sartzen dira aurpegiko keinuak eta gorputz koreografia, ahotsaren intonazioa, erritmoa, abiadura edo tinbrea; aurpegiaren edo eskuen keinu sotilak, jarrearen aldaketa ahulak, hitzekin batera doan begirada arina edo sarkorra. Gaia aztertu dutenek diotenez, aurrez aurreko hartu-emanetan informazio gehiena bide horretatik transmititzen da. Egun, idatzizko komunikazioan (batez ere txat bidezko mezu laburretan) areagotu egin dira aurpegi-adierazpenak imitatzen dituzten piktogramak, horien bidez transmititzen baititugu aldarteak; *emotikono* ospetsuak.

Dirudienez, ez-hitzezko hizkuntza ikertzen hasi zirenean, komertzialengan,

zuzendariengan eta exekutiboengan pentsatuz egin zuten. Apurka-apurka hurbiltzen goaz gaira. Argi eta garbi igaritzen da hori hauteskunde-kanpainenan, hautagaien gaineko publi-erreportajeak baitira gehien bat (irudi propagandistiko horiek, hautagaia urruntasunari sakanera metafisikoarekin begiraturaz edo kamerara autoestimu eta segurtasun handiz irribarre eginez).

Publizitateak eskura duen baliabide oro erabiltzen du produktuak saltzeko, edozein produktu. "Saltzea", hemen, hitzez hitz zein modu geroratuan uler dezakegu; izan ere, helburua produktu baten aldeko iritzia sortzea da, epe ertain edo luzera literalki salduko dena. Bai ezkutuko publizitatea bai publizitate subliminala espresuki debekatuta daude. Azken horri dagokionez, legez kontraktotasunak bere bertsio gogorri eragiten dio, hau da, hautematen ez ditugun estimuluak txertatzen dituzten teknikei. Baina, hori alde batera utzita, publizitaterik sofistikatuenaren arima, hain zuzen ere, iradokizunak eta zeharkako mezu ez esplizituak igortzean datza. Zentzu bikoitzeko kolore, forma eta hitzen, doinu oso hautatuen, *sex appeal* handiko ahots iradokitzaileen eta abarren bidez, saldu nahi duen produktuen aldeko elkarte eta alde zuzeneko

jarrera positiboak sortzea lortzen du hartzailearengan (horrek, onartzen dut, ez du azalpen gisa balio irratiko iragarki oihukari eta kirrinkarien kasuan, zeinen eragin-mekanismoak ezin baititut ulertu).

Berrikuntzaren aldeko diskurtso pedagogikoan etengabe agertzen diren konstante batzuek gai horietan guztietan pentsarazi didate. Esate baterako, eurena irakaskuntza "kooperatiboa", "aktiboa" edo "inklusiboa" dela diotenean, edo "ikaslea erdigunean" duen irakaskuntza, irakaskuntza "pertsonalizatua"... zer mezu zabaltzen ari dira benetan, azpitik? Bai, galdetzen ari naiz ea zein mezu subliminal ari diren gure alde emozionalera helarazten, modu maltzuraren, arrazionaltasun kritikoaren iragazkiak itzuri nahian. Izan ere, iruditzen zait beren proposamenak "ikaskuntza aktibo" gisa aurkezten dituztenean, adibidez, gainerakoa ikaskuntza pasiboa dela iradokitzen ari direla. Baina kontua da ez dagoela *pasiboa* izan daitekeen ikaskuntzarik. Bada, horrela guztiarekin. "Eskola berria" deitu zena, zaharra da aspalditik. Bere argudioak duela hamarkadak existitzen ez den eskola baten aurkakoak dira. Mozorrotutako publizitate emozional gutxiago eta eztabaida arrazional gehiago behar dugu, otoi. ●

Utopikook



ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU
EUSKALTZALEA

Monzonek esana da, "utopikoak egiten diote munduari aurrerarazi". Azken aldian, ordea, euskal politikagintzan boladan jarri da *pragmatismo* kontzeptua. Gizapedia- ren arabera, pragmatismoa da gizarteak dituen arazoei irtenbide praktikoak proposatzen dizkien filosofia aktiboa. Horretarako, bitarteko egoki eta erosoan baliatzen ditu, horietarako oztopo izan daitezkeen alde aurretiko ideiak eta printzipioak baztertuta, idealismotik ihesi. Joera horri eusten dioten politikariek emaitzei erreparatzen diete, ez hainbeste beren ideologiak agintzen duenari. Hain zuzen, aipatutako azken ezaugarri horrek eraginda edo, ezkerreko joera politikoetan ohikoa izan da bide horrek eztabaidak eragitea.

Definizioari erreparatuta, uste dut begi bistakoa dela agintea eta ardurak dituen politikariaren egitekoa dela gizarteak dituen arazoei irtenbide praktikoak ematea. Beste kontu bat da irtenbide horiek benetan irtenbideak izatea, ezpada enbarazu handiegirik eragingo ez duten ekimen "erosoak" direla. EAEko politikan oso ohikoa izan da egin beharra izan arren, ez egin nahi izatea, eta hori saihesteko, "ametsa doitzea" eta erdipurdiko emaitzak izaten dituzten ekimenak garatzea egiturazko arazo ga-

rrantzitsuen aurrean, helburuak erdieste- teko epemugarik, ganorazko ebaluazio- rik eta parte-hartze eraginkorrik gabe. Hain zuzen ere, eredu hori praktikatu dutenek pragmatismoa aldarrikatu izan dute zuribide gisa, Groucho Marxismoa- ri jarraiki ("...baditut beste printzipio batzuk"); udalbatzan kide izan nuen EAJko zinegotzi batek ere bere pragmatikotasuna aipatu zidan, justu, bere mendeko ataletan, euskarazko arretan eta zerbitzuetan, atzera urrats eta urraketa nabariak gertatzen ari zirelarik.

Argi dago badagokiola idealismoari zehaztea nola lortu nahi dituen aldarrikatzen dituen helburuak. Beti egin behar izaten dira urratsak (praktika) helburu (ideologia) jakin batera iritsi nahian, izan gehiago ala gutxiago, zailagoak edo erosoagoak, baina ustez kolpetik gertatzen diren iraultzetan ere, eraldaketa soziala ez baita goiz bateko kontua. Iparririk gabeko jarduna, ordea, akigarria da, eta eraginkortasun gutxiagoa. Nik Galeanoren poesia maite dut: "(Utopia) zerumugan dago. Bi urrats gerturatzen naiz, eta bera bi urrats urruntzen da; hamar urrats egiten ditut, eta ortzimuga hamar urrats harago aldentzen da. Luze ibilita ere, ez naiz iritsiko. Orduan zertarako balio du utopiak? Horretarako, ibiltzeko balio du". ●

Open Bar



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ikusi ditugu alimaleko traktoredun nekazariak, bideak, zubiak, mugak blokeatzen, eta bihotzak "krak!" egin zigun elkartasunez, geu ere laborari haurrak garelako eta anaiak, oraino, etxaldeak aitzina eramaten tematzen direlako. Manifestariak entzun ditugu normak kritikatzeko, bioxidoen erabilpena aldarrikatzeko... *open bar* nahi dute eta bost axola zaie ingurumena eta jendeen osasuna kaltetzea. Bistan dena, Frantziako FNSEako "nekazariak" ari naiz, besteak mugimendu horren ezpondetan begira gelditu direlako -eta beharrik, bestela

esperantza galduko genuen arras-.

Gosearen xantaia egiten digute desgertzeraz uzten baldin baditugu. Elikatzen gaituztela sinesten dute, baina "nekazari" horiek ekoizten dutenaren parterik handiena Europako hesietatik kanpo esportatzen da, zerealak, esnea, oilaskoak... eta petzerotzat daukaten laborantza txikiagoak, organikoak edota iraunkorrak, gaitu egiazki hazten.

Puntu batean arrazoi dute: hiritar "bobo-ekolo" hauek jakin behar dugu nori zer erosi. Uste dut askok jadanik hautua egina dugula... ●

Zenbat kostatzen den euskaldun izatea



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Euskara ikasi eta erabiltzen hasi nintzenez, berehala jabetu nintzen euskaldunentzat haietako beste bat gehiago bilakatu nintzela (gasteiztar euskaldun berria izanda azken bagoietakoa, baina barruan). Nire artean pentsatzen nuen Euskal Herria herri ederra zela; etimologikoki euskararen herria da, eta euskalduna, berriz, euskaraduna. Baina ez soilik etimologikoki: euskaldun batek beste pertsona bategatik “euskalduna da?” galdetzean, “euskaraz ba al daki?” galdetzen da. Horregatik, euskararen herria nahiko herri abegikorra iruditu zait beti: berdin da nondik zatozen, euskara ikasten baduzu euskalduna zara.

Estatu nazioak ez dira hain abegikor, eta hizkuntza ikasita ere badira etorkin familietan bigarren, are hirugarren, belaunaldiak beren burua frantses hartzen ez dutenak (espainiar edo frantses zuri askok ere herrikide hartzen ez dituztelako eta estatuaren beraren arrazakeriagatik).

Ez dut uste, beraz, euskararen munduan gaztelaniaren edo frantsesaren munduan baino arrazistagoak garenik,

Badira gauza batzuk konpondu beharko genituzkeenak arrazializatuak eta pobretuak diren pertsonen euskararen mundurako pasaporteak (euskara ikastea) errazago lortu dezaten

eta ez dut uste Nerea Fillatek ere hala uste duenik. Baina, *El Salto*-n egin zioten elkarrizketa hartatik “badira euskararen mundutik datozen politika zenbait nahikoa arrazista eta baztertzaileak direnak” esaldia hartu eta, Twitterren [maixiaket](#) da lege [festa](#) hasi zen.

Niri esaldiaren atzean gordetzen diren gauzak interesatzen zaizkit, eta ez esaldi huts horrekin debate sakonagoa

estaltzea. Eta bai, badira gauza batzuk konpondu beharko genituzkeenak arrazializatuak eta pobretuak diren pertsonen euskararen mundurako pasaporteak (euskara ikastea) errazago lortu dezaten. Bi aipatzearen:

Bat, herri batean baldin badaude bi eskola, eta batean nagusiki etorkin familia diruz ez oso aberatsak eta bestean “herriko” familien ume zuriak badaude, banaketa arriskutsua da publiko espainol doakoa vs euskaldun “itunpekoa”. (Gai horrekin beti gogoratzen naiz Gabriel Arestirekin, frankismo sasoian ere umeez euskaraz ikasteagatik kuota bat ordaintzearen kontra zegoena).

Bi, helduek euskara ikasteagatik eskualtegia ordaindu behar badute (nahiz eta zenbait baldintzetan gero diru hori itzuli etab.), galdetu ahal diote beren buruari zergatik gaztelania edo frantsesa guztiz debalde diren eta euskara ez.

Euskaldunok ez badugu unibertsaltasun eta doakotasunaren aldeko borroka egiten, eta “onartzen” badugu gauzak “horrela daudela” (2024an!), euskara (Euskal Herria) merezi ez duen kuota batekin lotzeko arriskua dugu. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Apirilak 3

**Zergatik igotzen dira
elikagaien prezioak?**

Juanma Intxaurrendieta

Apirilak 10

Ardo sektorea borborka

Esti Besa

Apirilak 17

**Baratze-oihanetik
burujabetzara**

Gorka Torre

Apirilak 24

**Euskolabel tomatea
hidroponikoa da**

Marta Barba



23.korrika

BURBUILAREN OSTEAN BADAGO ZER EREIN

LEIRE ARTOLA ARIN AEK





Irundik Baionara, ezin ezkutatzkoa izan da 23. Korrikak eragindako harrotasuna. ‘Herri Harro’ leloak zentzua hartu duela ikusi dugu lekuko hartzaileen aurpegietan, eta atzetik euskararen alde oihuka aritu diren korrikalariengan. Bakoitzak bere gorputzetik eta bere errit-mora hartu du parte Korrikan, eta argi ikusi da gero eta komunitate handiagoa eta anitzagoa dela euskaldunona.

Komunitate horretan sartzen dira era guztietako iritzi eta balioak, are, aurkako ikuspegiak ere. Eta harrigarria da ikustea nola Korrikak lortzen duen herri osoa batzea, gainerakoa albo batera utzi eta euskararen alde egiteko. Deserosoa da egunerokoan euskararen aurka ari diren politikari eta sindikatuei lekukoa pasatzea; mingarria da Ertzaintzak oldarraldi batean begian jo zion 16 urteko billabonatarrek jaso duen lekuko bera gero ertzainek eramatea. Baina guztiok gara euskararen herriaren parte, eta erai-ki beharko dugu bizigarria den komunitate bat; euskalduna bai, baina balio batzuk errespetatuko dituen.

Hamaika egunetan mugarik ez duen Euskal Herria ezagutu dugu, eta AEK izan da ate eta zubi horiek zabaltzeko dituen. Euskara izan da guztiok lotu gaituen. Herriz herri nabarmen aldatzen da euskara eta euskaltzetasuna ulertzeko modua, baina guztietan ikusi da AEKren lanari egindako eskertza. Funtsean, hori baita ekimen herrikoi hau: Euskal Herria euskalduntzeko eta alfabetatzeko bultzada erraldoia. Baina ezin dugu ahaztu Korrika ez litzatekeela ezinbestekoa izango euskara ikastea doakoa balitz, denontzat, lurralde guztietan, eta baldintzarik gabe.

AEK-k bota du eskea: “Konpromiso gehiago eta baliabide gehiago ditugu behar”. Garazi Arrulak berretsi du mezua: “Ez dugu ahazteko hizkuntzaren auzia politikoa dela. Eta urgentziazkoa”. AEK-k ospatu du inoizko Korrikarik jendetsuena izan dela, eta nabaritu da euskararen aldeko jarrera za-

baldu dela. Baina jarrera ez da nahikoa, eta berehala behar da instituzioen inplikazioa; herri harroa ez da inozoa, eta instituzioen zuriketak ez dio balio. Brillibri-lliak jarriko ditugu soinean, baina instituzioei dagokie oinarriari eustea. “Harro bai, baina ez konforme” dioen herria aurrean dute, eta euskarak hegemonia har dezan nahi du.

Herri harroak nahi ditu azterketak euskaraz, bai Ipar Euskal Herrian baita Hego Euskal Herrian ere. Nahiz eta azterketarik gabeko herria amesten dutenak ere badauden, oposizioen araberako sistema honetan euskara lehenestea nahi du herriak. Euskara ez baita inposizioa, eskubidea baizik. Korrikak balio dezala aldeko jarrera dutenei euskara ikasteko grina pizteko, eta bada-kitenei erabiltzera bultzatzeko.

Euskara ez dago bizirik haren alde egin dutelako aurreko belau-naldiek, baizik eta euskaraz bizi izan direlako, erabili dutelako. Eta 23. Korrikan ere argi ikusi dugu euskara eman diguten horien harrotasuna, hura ondo transmititu izanaren asebetetasuna. Guraso berriei ere ikusi dizkiegu begiak bustita, haur txikiak lehen aldiz korrika ikustean. Euskara belau-naldiz belaualdi, hegazti harra-parien atzaparretatik ihes egin duten zozoak hegan.

Hamaika egunez burbuila batean bizi izan gara, fantasiako Euskal Herrian, Baionako Askatasun plazan amaitu den eztizko telesail horretan. Eta hori izan da herria antolatu delako eta AEK-k boluntarioen bultzada izugarria izan duelako. Ekosistema osasuntsu bat da Korrika, baina hamaika egunetatik at pixkanaka hondatzen dena. Garazi Arrularen deiari erantzun, eta erre beharko ditugu belar txarrak eta espezie inbaditzaileak, eta landatu bizigarria den eta zainduko dugun baso kolektibo bat.

* Leire Artola ARGIAren berriemate berezia izan da Korrikaren prentsa taldean. ●





“Herri anbiziotsu bat”

 GARAZI ARRULA RUIZ  AEK

Korrika da herri bat gose iraun baino, haginka. Herri anbiziotsu bat ez baita husten agiritan.

“Mintzairaren seta guk dugu, erro-mantiko porrokatuok, pikuan bizi garenok, zozook”. Halaxe zioen, ironiaz, zozo egoskor batek.

Hegazti harrapari guztiek ehizatzen dute zozoa, gautarrek nahiz egunekoek. Ez omen du primaderan kantatzen, eta gure lurretan urriago dira pinu eta eukalipto birlandaketetan, tokiko baso autoktonoetan baino. Arrainak ura, eta euskarak ekosistema osoa. Hizkuntzaren dimentsio guztiak izan ditzan hiztunak, gizartearen arlo oro busti beharko du hizkuntz-politikak: basoak, soroak,

plazak, lantegiak, pantailak, iruditeria. Egunerokoa hartu behar du biziko bada, Beskoitzen, Eguesibarren zein Bizkarsoro orotan.

Baina hemen gara, zozoen elean.

Ez altxor, ez oroitarrri, ez toponimia. Euskarak hegemonia hartzeaz ari gara.

Ez agur bat, ez txapa bat paparrean, ez lur zatitu bat.

Ez da fenomeno meteorologiko bat, ez gastronomia huts, ez borondate libreko kontsumogai.

Ez da brilli-brillizko bilgarria, ez trurakerako txanpona.

Ez da beste, ez besteena.

Eta batez ere, batez ere, ez da diskriminazio iturri, ez inposizio.

Bedi gutxiago konpetentzia, eta gehiago konpromiso, norabide, zeharlerro, harrobi-de.

“Gutarik bakoitzak anitz hizkuntza ukan ditzake; euskarak gu baizik ez gaitu”. Halaxe zioen beste zozoren batek.

Nor izatearen aitortza, horixe dugu euskara: ez gehiago, ez bestelako, ez gutxiago.

Oxala, hizkuntza bat balitz, eta fini.

Bestela esanda, ez dugu hazkunde lasterreko espezieen industria laborerik nahi, tokian tokiko basoak nahi ditugu, hangok eta hemengok babes hartzeko eta bere egiteko, non zozoak izanen duen non kukutu, ibaiak nora isuri, onddoak zeri heldu, eguzkiak zer urtu.

Kontingentzia planik ez: egiazko trantsizioa nahi dugu.

Eta izanen bada, kolektiboa, antolatu eta lotsagabea izan beharko du.

Elkar zainduz, bidea bizigarri eginez. Afektuaz ere ari baikara, afektatzeaz. Konplexurik gabe. Erabakitasunez bezala ahizpatasun haizez.

Tinko eta fermuki, ados, baina amultsu, narras, hauskor ere bai.

Gorputzetik pasako baita, halabeharrez. Desira bada transmisiorako bide behinena, ez dugu ahazteko hizkuntzaren auzia politikoa dela. Eta urgentziazkoa. Desira historia batean hasten da. Gurea egunero idazten, kontatzen, egiten gabiltza, gero bat gaurdanik sortzen, euskarari bere lekua munduan eta geroan finkatzen. Mundu oso bat kabitzen baita euskarari. Noranahiko, euskaraz gara.

Udaberrian ere kantatuko dugu zozook. Bizi gareino kantatuko dugu; bizi deino, herri honek euskara dantzatuko du.

Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten.

Biba korrika, harro herria! ●



Bixente Claverie (AEK) eta Garazi Arrula lekukoko mezuaren egilea.

“Harro bai, baina ez konforme”

MAIDER HEGUY ETA BIXENTE CLAVERIE, AEK-KO KIDEAK  AEK

Gure lehen hitzak ondoan ez ditugun AEKideentzat dira: Julio Aranguena Aristi eta Beñat Espil. Euskararen alde eraman duzuen borrokagatik, gora zuek!!

Agur eta ongi etorri Baionara!

Zuei eta milaka herritarri esker heldu gara honaino. Zuek zarete euskararen herri garra! 11 egunez eta 10 gauetz, ibili zareten haur, gazte eta heldu guztiei, AEK-ren esker beroak eta txaloak dezentzat!

Irundik harro abiatu zen Korrika, eta eskuz esku, goxoki eta fermuki heldurik, lekukoak bidea egin du Baionaraino, mezua orotara helaraziz, Euskal Herria batuz eta bilduz, milaka jendek kate horretan bat eginez! Harro gara, Korrikak batzen gaituelako. Harro gara euskaldun izateaz, konplexurik gabe. Eta harro diogu, euskaraz bizi nahi dugula.

Harro gara... baina ez konforme!

Garazik erran digu: hizkuntzak ekosistema osoa behar du eta horretan denok dugu lekua, euskaldunek eta ikasi nahi dutenek, erdaldunek ere, euskarari lekua utziz. Euskarak denak bil gaitzake, euskara ez baita muga, ate bat da.

Zenbakiek, urri, errealitate gordina salatzen digute. Jendea ikastera erakarrri behar da, aukera eta laguntza eman. Erronka handia dugu! Euskara ikasi nahi dutenentzat, bihar ere, gau eskolak zabalduko ditugu, euskararen geroa ahal bezain batekin partekatzeko eta eraikitzeko. Alta, helduen euskalduntzearen arloak baliabide eskasak ditu oraino eta ikasleentzako doakotasuna oraino lortzekoa dugu lurralde guztian.

Euskara ikasi nahi duenak euskaldun



nok behar gaitu. Gu ere, harro gaitezen, orotara helarazi behar dugu euskara, eta argitan biziarazi. Hiztunok, ordua dugu itzaletik ateratzeko eta ekiteko, bazterretik erdira jiteko eta hitza luzatzeko. Bakoitzari dagokigu atea zabaltzea eta zabalaraztea, euskararen lekua egitea, hartzea eta sortzea, gure etxeetan, lantokietan, plazetan, eremu publikoetan. Hau da gure herri-bidea eta ekosistema bete behar dugu fierki. Garazik zioen: “gizartearen arlo oro busti beharko du hizkuntza politikak”. Euskara ezin da erabaki soila izan, ez apaingarri hutsa, ez ikur liluragarria. Euskarak gizartearen gune guztietan egon behar du eta instituzioen hizkuntza izan behar du ere. Instituzioek ardura handia dute: hizkuntz-politika ausarta eta sendoa behar dugu eta ez “brilli-brillizko bilgarria”: konpromiso

gehiago eta baliabide gehiago ditugu behar, eta orain behar ditugu.

23. Korrikak azterketak euskaraz kolektiboa omendu du, euskara haien aldarria delako, Korrikarena bezala. Oraindik ere, ikasleei azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea ukatzen zaie. Baxoa eta Brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen segituko dute ikasleek: animo eta txalo beroak haiei! Euskara ez da inposizio bat, eskubide bat da!

Korrika 23 amaitu da eta 24garrena gogoan dugu. Baina orain festaren ordua da! Korrika batzordeetan inplikatu direnei eta festaz gozatzeko lanean diren AEK-ko ikasle, irakasle eta laguntzaile guztiei, esker beroak! Pasa egun on bat!

Harro herri! Gora Korrika! Gora AEK! Gora euskara! ●

BABESLEA:



AHOZTAR ZELAIETA

Enpresa pribatuen esku utzi da segurtasun publikoaren norabidea



Ertzaintzaren azken hamarkadako bilakaera teknologikoa aztertu du bere liburu berrian Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetari, kriminologo eta ARGIAko kolaboratzaileak. Segurtasunaren industria ikertu eta Ertzaintzarekin duen lotura plazaratu du, *La Ertzaintza que viene. Tecnología de hipervigilancia y capitalismo de consultoría* liburuan (Datorren Ertzaintza. Hiperzaintza teknologia eta aholkularitza-kapitalismoa, Txalaparta).

 JON HIDALGO GEREÑU

Azken hamarkadan Ertzaintzan aldaketa izan dela diozu. Zein norabidetan?

2013tik aurrera plan eta kontsulta asko egin dira polizia ereduak aldatzeko. Azken hamarkadan egindako kontratuak aztertu ditut, eta nabarmena da teknologiarekiko obsesioa. Erosketa asko egin dituzte eta dirutza gastatu dute. Aztertu dut zein enpresek duten profil susmagarria, zein tresneria egiten duten eta nori saldu dioten. Tresna horiek erabili izan dituzte giza eskubideei eraso egiteko: disidentzia politikoak, gutxiengo sozialak, migratzaileak eta abar. Enpresa horiek Ertzaintzarekin duten harremana aztertu dut

Zein dira eredu berriaren ezaugarriak?

Batez ere teknifikazioa. Teknologiarekin lotutako erosketa oso handiak egin dituzte, ahalik eta tresna berrienak erositara. Gizartean komunikazio eta portaera ereduak aldatzen ari direnez, horiek ze-

“Edozein telefonotan arakatu ditzake egindako dei guztiak, kontaktu guztiak eta elkarrizketa guztiak, baita norekin izan ditugun ere”



latatzeko beharrezko teknologia lortzen aritu dira. Beste ezaugarri garrantzitsu bat da gardentasun eza. Ez dute azaltzen nori erosi dioten, ezta zein prezioan ere. Teknologia militarra erosten eta segurtasun publikoa militarizatzen ari dira.

Kolaborazio publiko-pribatua sustatu da azken hamarkadan. Enpresa pri-

batuen esku utzi da segurtasun publikoaren norabidea. Ez soilik teknologia erosten, baita aholkua eskatzen ere. Korporazio pribatuak ari dira agintzen nora jo behar duen Ertzaintzak, hitzarmenen bitartez.

Aipatu duzu eredu iragarle edo prediktiboago batera jotzen ari dela. Zer da hori?

Datu asko jaso nahi dute profil batzuk kategorizatzeke, ondoren arriskutsutzat jotzen dituzten komunitate horiek elementu prediktiboz inguratzeko, delituak ekiditeko, askotan adimen artifizialaren laguntzaz. Baina horretarako datu pila batu behar da, eta horiek pilatzeko teknologia asko erosi dute. Guztion datuak jasoko dituzte, ez soilik “delitugileenak”, eta horrek zalantzan jar dezake errugabetasun printzipioa. Ertzaintzaren kasuan ez dago informaziorik jakiteko zer erabilera ematen ari zaion teknologiarri. Oraintxe lortu dugu jakitea tresneria hori erosi dutela.





Ertzaintzaren barruko opakotasuna nabarmendu duzu hitzaldietan.

Adibide bat emango dizut. Osakidetzan, 1990eko hamarkadan pribatizazio handien bidea abiatu zuten, baina laster hasi ziren bertako langileak grebak egiten hori salatzeke, sindikatu eta alderdi batzuekin batera. Erresidentzietako langileekin beste horrenbeste. Baina Ertzaintzaren barruan ez dago barruko gehiegikeriak salatuko dituen langileen kolektiborik, soldata igoerak eskatzeko besterik ez dira mobilizatzen. Bunkerizatutako erakundea da.

Zer harreman dauka Ertzaintzak giza eskubide urraketekin lotutako enpresekin?

Harreman handia dauka, eta denetik dago: Wikileaks-en *Spyfiles* filtrazioetan agertzen diren enpresak edo gobernu autoritario errepresiboek saltzen dietenak, besteak beste. Enpresa horiek ez dute etikarik, frogatuta dago, eta Ertzaintzak ez du batere etikarik izan edo-

“Gasteizen 600 kamera inguru dituzte udaltzainek, Donostian 350 eta Bilbon 265 inguru. Bartzelonan Poliziaren 117 kamera besterik ez daude”



zein enpresari erosteko orduan. Nahiz eta publikoa izan enpresa horiek eskubide urraketekin lotura zuzena dutela, Ertzaintzak tresneria erosi egiten die. Hori bai, ezkutuan egiten du. Eta parlamentuan azalpenak eskatzen zaizkienean sekretua dela esaten dute. Gardentasun

falta nabaria da.

Hainbat nazioarteko erakundek frogatu dute tresna horiek erabili direla hainbat lekutan giza eskubideak urratzeko, Europar Batasunean barne. Urraketak ez dira soilik gugandik urrun gertatzen, Madrilan edo Katalunian ere izan dira halako salaketak.

Enpresa israeldarrekin lotura handia izan du Ertzaintzak?

Ertzaintzaren armategian denetik dago, teknologia estatubatuarra, alemaniarra, frantsesa, italiarra, eta israeldarra ere bai. Ugaria da eta aspaldikoa. Ertzaintza aitzindaria izan da Israelekiko harremanetan. Komunikazioen Interbentziorako Sistema israeldarra da. Telefono mugikorretatik datuak ateratzeko softwarea israeldarra da. Tresna horietako batzuk orain egin dira ezagunak, baina Ertzaintzaren baseetan zeuden jada.

Israelgo bi enpresa garrantzitsu eta zikinenak dira Verynt Systems eta NSO Group. Azken hori da Pegasus espioitza

tresnaren egilea, Katalunian hain eza-guna egin dena. Ertzaintzak bere Komunikazioen Interbentzioko Sistema hobetzeko egindako azken kontratuan hiru enpresa gonbidatu zituen, hirurak Pegasusen banatzaileak. Lotura hori ezkutatzen saiatu da Eusko Jaurlaritza, espioitza kasuaren polemikatik aldendu nahian.

Zer gaitasun berri lortu du Ertzaintzak? Zer egin dezakete?

2021etik hona 154 milioi gastatu dituzte soilik telekomunikazioak eta informatika zelatzeko tresnetan. Adibidez, batzuk ematearren, komunikazioak kontrolatzeko puntako sistema bat dauka Ertzaintzak, Israelen egin. Berezi se-gurtasun maila altuko telefonoak zelatzeko egin dago, baina edozein telefono arakatu dezake: egindako dei guztiak, kontaktu guztiak eta deskargatu dituen aplikazio guztiak, berezi sare sozialetakoak. Whatsapp, Telegram, Gmail, Signal, aplikazio horiekin izandako elkarrizketa guztiak ikus ditzakete, baita norekin izan ditugun ere.

Beste gailu bat, britainiarra kasu honetan, manifestazioetan erabiltzekoa da, bertaratu diren pertsonen telefonoetako informazioa bereganatzeko, baita kazetari edo parlamentariena ere. Antena faltsu bat da, jar daitekeena Ertzaintzaren auto batean edo, adibidez, ertzain infiltratu batek eraman dezakeena motxila batean, eta mugikorrei ziria sartzen die. Pentsarazten die hori dela estaldura hobereana eskaintzen duen seinalea, eta mugikorrek informazio guztia antena horren bitartez bidaltzen du. Ondoren Ertzaintzak informazio hori deskodetu eta analizatu dezake. Horren bidez ere sarbidea lortzen dute manifestariek erabiltzen dituzten sare sozialetara, profil faltsuak erabiliz bertako erabiltzaileekin elkarrizketak izateraino.

Mugimenduak zelatzeko sistemak ere asko hobetu dira. Autoen azpian ipintzen ziren gailuak nabarmenak izaten ziren, baina orain oso txikiak dira eta bizikletetan ere itsatsi daitezke. Gainera, orain mikrofonoak ere badituzte gailu horiek eta, mugimenduak zelatzaz gain, entzun ditzakete ibilgailuaren inguruan izandako elkarrizketak. Bestalde, adimen artifiziala, Big Data, algoritmoak eta halakoak ere indartsu heldu dira Ertzaintzara.

Euskal Autonomia Erkidegoan bideozaintza maila bereziki altua



“Aurpegi-ezagutzarako teknologiarri dagokionez, 300.000 aurpegiko datu-basea eskatu du Ertzaintzak. Ba al daude 300.000 gaizkile?”



dagoela aipatu izan duzu.

Ez da kontu berria, 1990eko hamarkadan jada bideo bidez zelatzeko sistema pioneroa zuen Ertzaintzak, eta garatzen jarraitu du orduetik hona. Datu argirik ez da ematen, baina jakin ahal izan dugu 2.037 kamera finko daudela gutxienez, trafikokoak zenbatu gabe, 1.435 *bodycam* (ertzainen uniformeetan erantsitako kamerak) eta hamahiru drone. Arartekoak urtarrilean argitaratu zuen txosten batek dio ez dagoela loturarik kamera kopuruaren eta dauden delitu mailen artean.

Hiriei dagokionez, Gasteizen 600 kamera inguru dituzte udaltzainek, Donos-

tian 350 eta Bilbon 265 inguru. Berbarako, Bartzelonan Poliziaren 117 kamera besterik ez daude, *Ara* eta *La Vanguardia* hedabideen arabera. Aldea sekulara da. Dirutza sartu da bideozaintzan, lehen heltzen ez ziren leku askotara heltzeko. Helikopteroetan ipintzeko kamera bereziak ere erosi dituzte. Eta gainera, Ertzaintzak onartu behar izan du ezkutuko kamera batzuk daudela, adibidez Gasteizen, meskita baten sarrera zelatzeko, etsai berria kontrolatzeko.

Migratzaileen aurka ere erabiltzen omen dira teknologia berri horiek.

Ertzaintzak erositako teknologia ugari erabili da migratzaileen aurka egiteko. Mugetan mugikorra kendu eta informazio guztia ateratzen diete, baita Lanbiden ere, adibidez. Ertzaintzak hitzarmena dauka Lanbiderekin, eta aurpegi-ezagutzarako tresnak erabiltzen ditu diru-laguntzetan iruzurra ekiditeko. Datu biometrikoak jasotzen dira (argazkiak, bideoak eta ahots grabaketak) eta ondoren egiten zaizen kategorizazioaren arabera erabakitzen dute pertsona bakoitzari laguntza sozialak eman ala ez. Kontrara, milaka familiak ez dute DSBE eskatzen ez dakitelako jaso dezaketela, baina ez da teknologiarik sortzen familia horiek topatu eta informazioa emateko. % 0,01eko iruzurra dago DSBEen, ezer ez, baina aurpegiak ezagutzeko sistema bat ezarri dute horren atzetik ibiltzeko.

Garrantzitsua da hori azaltzea. Izan ere, normaltzen bada teknologia hauek migratzaileekin erabiltzea eta, bestalde, ohitzen bagara delinkuentziaren aurka erabiltzera, gerora inpunitate espazio hori zabalduko da gizarte osora.

Nola justifikatzen da horrelako teknologia erabiltzeko beharra?

Mehatxu eta alarma sentipenak sortuz, nahiz eta delitu tasek ez duten alarmerik justifikatzen. Jende asko doanez makrokontzertuetara, segurtasuna jarri behar da martxan, ustez jendearan onurarako. Droneak daude BBK Live jaialdian eta BECen, adimen artifizialarekin eta aurpegi-ezagutzarako teknologiekin. Tresneria horren ikerketa lagina oso zabala da, ez soilik delinkuentzia. Ertzaintzak aurpegi-ezagutzarako teknologia bilatu duenean, 300.000 aurpegiko datu-basea eskatu du. Badaude 300.000 gaizkile? Biztanleriaren %10 baino gehiago?

Gehiegi ari dira normalizatzen horrelako tresnak. Eusko Jaurlaritza bera ere ari da jendeari eskatzen aplikazio bat

“Askotan erraztu egiten diegu lana Poliziari eta gobernuari”



deskargatzeko zenbait erakunde publikotan mugikorrarekin sartu ahal izateko eta, gure segurtasunaren izenean, esaten du hamabost segundoko bideo bat bidali behar diogula gure ahotsarekin eta aurpegiarekin. Askotan erraztu egiten diegu lana Poliziari eta gobernuari.

Kontrol sozial handiko distopia bat irudikatzen dugu askotan halako informazioekin. Paranoia zabaltzeko arriskua ere nabarmendu duzu.

Liburuan aipatzen dut marketin asko dagoela. Hori kontutan izan behar da, erlatibizatu ahal izateko, agian mamu handiegiak sortzen direlako. Ertzaintzaren barruan badaude friki batzuk, tresna horiek gustuko dituztenak eta beren erabilera handitu eta hobetuko dutenak, baina gutxiengo dira oraindik. Jende asko dinosauroa da Ertzaintzan. Teknologia asko erosi da eta arduratuta egon beharko genuke, bai. Baina oso ertzain gutxi dago hainbeste jende ikertzeko eta tresna horiek ez dira izango saltzen duten bezain eraginkorrak.

Adibidez, ustelkeria edo ingurumenarekin lotutako delituak ikertzeko oso ertzain gutxi dago, baina San Mames aurrean kolpeka aritzeko, piloa. Hala izaten jarraitzen du horrek.

Teknologia honek Ertzaintzarentzat ere arriskuak omen dauzka.

Bai. Ez dago horren inguruko dokumenturik, baina iturriekin hitz egitean askotan kezka azaldu dizkidate. “Atzeko atek” aipatzen dituzte. Hau da, arriskua dagoela Ertzaintzak bildutako informazio guztia teknologia enpresei ere heltzeko. Hala, informazio hori beste erakunde batzuei saldu diezaiekete. Enpresa horien bezero bakarra ez da Ertzaintza. Guardia Zibila, Espainiako Polizia, CNIA, AEBetako inteligentzia zerbitzuak eta beste hainbat ere badaude, eta badakigu informazioak zenbat diru balio duen gaur egun.

Batez ere Ertzaintzako beteranoren artean dago beldurra, haiek bizi izan dutelako lehengo etapa, non tresnak

“etxean eginak” ziren, alderdiaren enpresetan. Baina, gailurrean egon nahi baduzu, merkatura joan behar duzu, eta zabaltzen zarenean arrisku horiek asumitu behar dituzu.

Hala ere, euskal enpresak ere ez daude guztiz zaharkituta, Ikusi eta Dominion adibidez. Horieta ate birakariak daude, edo gutxienez jekideekin harremana dute, baina sektorea orokorrean nazioartera igaro da.

Nazioartekotzeak ba al du eraginik Ertzaintzaren norabidean?

Bai, ez direlako soilik erosketak egiten kanpoan, aholku eske ere joaten dira. Hori da aholkularitza-kapitalismoa deitzen duguna. Osakidetzan gertatu den bezala: mediku edo erizain propioekin hitz egin beharrean, ikusteko zelan egin egoera hobetzeko, aholkulari enpresa bati ordaintzen zaio bere txostenean agertu dadin kontratatzaileak nahi duena. Dirutza ematen zaie aholkulari pribatuei, ustez haiek jakingo dutelako osasun publikoarekin zer egin. Ertzaintzaren eredia berdina da. Gaur egun Price Waterhouse Cooper, LKS eta antzeko enpresei galdetzen zaie zer egin behar den, zein plan jarri behar den martxan eta zein teknologia erosi behar den. ●



Koop

mitxelena

MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA
CERTIFIED
AS 9100

LRQA
CERTIFIED
ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.es

www.talleresmitxelena.es

PARIS 2024

Eredu olinpiko ezagun baten sintomak

Hiri bat Olinpiar Jokoen antolatzaile izendatzen dutenean, biztanleen artean ilusioa sortzea da helburuetako bat. Askok dira hartu beharreko erabaki polemikoak, eta herritarren babesa izateak lana errazten du. Hala ere, 2017an Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) Paris aukeratu zuenean 2024ko Joko Olinpiar eta Pa-

ralinpikoen antolatzaile, berriak ez zuen Frantziako hiriburuko biztanleen artean interes handirik piztu. Agintariek hiria berritzeko aukera bikaina dela eta herritarrentzat ondare oso positiboa utziko dela errepikatu dute behin eta berriz; baina, dirudienez, munduko kirol ekitaldirik handienak ez dauka garai bateko dirdira.

 XABIER RODRÍGUEZ

Lanpostu berrien sorrera, auzoen biziberritzea eta aurrekontu txikia dira promesetako batzuk; baina, azkeneko edizioei begiratzen badiegu, zor publikoaren igoera, biztanleen desplazamendua, *greenwashinga* edota gune publikoen militarizazioa izan dira Olinpiar Jokoen ondorioetako batzuk. Azken hamarkadetan, lekuko elite batzuen negozio gisa finkatu dira; nekez pentsa dezakete Pariseko *banlieue* edo aldirietako biztanleek Jokoei hobekuntzarik ekarriko dituztenik beraien eguneroko bizitzetan.

9-3 BARRUTIA

Seine-Saint-Denis –*le Quatre-Vingt Treize* edo *Neuf trois*– barrutiak hartuko du olinpiar hiria. Tradizio industrial luzeko eremua, Europako bigarren industria-eremurik handiena zen XX. mendearen

erdialdean, harik eta, 1970eko hamarkadan hasitako desindustrializazio prozesuan, biztanleen zati handi bati lana ematen zioten kotxe eta altzairu fabrikak ixten hasi ziren arte. Horrez geroztik, porrot egin dute gobernuaren erreskate plan guztiek, eta pobrezia eta langabeziaren ehunekoak Frantziako batez bestekoa baino bi aldiz handiagoak dira bertan. 1998an Munduko Futbol Kopa Frantzian ospatu zen, eta estadio eder berria eraiki zuten Saint-Denis-en; baina ez zen ezer ere aldatu. Zazpi urte geroago, langabeziaz eta Poliziaren basakeriaz nazkatutik, istilu bortitzak piztu ziren han.

Estadio hura izango da Jokoen erdigunea, eta antolatzaileek barrutiaren biziberritzeaz promesak haizatu dituzte: enpresa askoren etorrera, negozio berrien sorrera edota ibaiaren berresku-

ratzea, adibidez. Momentuz, Frantziako departamendurik pobreenean amaitzen ari dira 15.000 kirolari inguru hartuko dituen olinpiar hiriaren lanak. Kirolariak etxera bueltatzean, eraikitako etxebizitzan laurdena publiko bihurtzea espero da; eta herena inguru, diru-sarrea apalak dauzkaten langile eta ikasleei alokatzea gobernuari lotutako agentzien bidez. Gainerakoak merkatu librean salduko dira, bertakoak kanpo utziko dituen prezioan eta Saint Denis-en gentrifikazioaren mamua elikatuta.

“Ziurtatu nahi genuen Olinpiar Jokoen ondareak zentzua izango zuela hemen biziko diren hurrengo belaunaldientzat”, adierazi du olinpiar hiriaren zuzendari Henri Specht-ek. Ikusteko dago hurrengo belaunaldi hori zeintzuk osatuko duten, baina azkeneko aurrekarietara erreparatzen badiegu, zail da baikorra

izatea. Londresko 2012. urteko Jokoe-tarako, olinpiar hiriaren zati handi bat etxebizitza sozial bihurtzeko promesa egin zuten antolatzaileek, baina Jokoak bukatu eta gero ez zen horrelakorik gertatu. 2016. urtean, Rio de Janeiroko Barra da Tijuca favela luxuzko auzo bihurtu zuten, eta bertako biztanleak etxebizitza berriak bilatzera bultzatu zituzten.

Eredua gehiegitan errepikatu da. Olinpiar Jokoak auzo baztertu bat berritzeko aitzakizat hartzen dira, baina higiezinaren negozio bilakatuta, bertako biztanle asko kanporatu egiten dituzte. Saint-Deniseko etxebizitzaren prezioa herena igo da azken urtean, eta *Le Revers de la médaille* kolektiboaren arabera, etxerik ez duten 3.000 lagun kanporatu dituzte hiritik.

SENA BERRESKURATZEA

Saint-Denisetik hamar kilometrotara izango da inaugurazio ekitaldia, Sena ibaia ardatz hartuta. Parisen erakusgarri ezinhobea, Eiffel dorrearekin edo Notre-Dame katedralarekin batera. Gainera, ibaiaren berreskuratzea da Joko "berdeen" ikur nagusietakoa.

1900. urtean Parisen egindako Olinpiar Jokoetan, Senan egin ziren igeriketa probak. Garai hartan ohikoa zen herri-tarrak bertan bainatzea, baina 1923az geroztik debeka-

turik dago, uraren kutsadura-mailagatik. Jokoak direla-eta Frantziako Gobernuak gastu handia egin du ibaia berreskuratzeke. 1.400 milioi euro inbertitu dira Senako araztegieta bi desinfekzio-unitate eta euri-ura bilduko duen biltegi bat martxan jartzeko. Distantzia luzeko eta triatloiko igeriketa probak egin nahi dituzte bertan. Dena den, azken neurketetan uraren kalitate-mailak espero baino emaitza txarragoak eman ditu, eta horrek eragin duen zalantzaren aurrean, Parisko alkate Anne Hidalgo Jokoen aurretik "bainu kolektiboa" egitea proposatu du, urak garbi daudela erakusteko. Emmanuel Macron presidenteak berak ere esan du bainatuko dela.

Inaugurazio zeremonia 500.000 ikuslerentzat zegoen aurreikusita, baina 300.000ra jaitsi da, segurtasun arazoak direla medio. Propaganda kanpaina erraldoi horretan hiriaren eta Estatuaren ospea jokoan daude, eta antolatzaileek ez dute inolako arriskurik hartu nahi. Hori da, hain justu, aurrekontua puzteko edizio guztietan baliatzen den arrazoia, baita segurtasun arloko teknologia berrien proba-banku gisa erabiltzeko jartzen den aitzakia ere. Paris ez da salbuespena, segurtasunaren izenean adimen artifizialaren bidez kontrolatutako sistema probatuko dute, nahiz eta, eragin duen polemikaren ondoren, Frantziako Go-

bernuak ziurtatu duen ez duela aurpegia ezagutzeko teknologiarik erabiliko.

ERREPIKATZEN DEN EREDUA

Nazioarteko Olinpiar Batzordeak adierazi du Paris 2024k aro berria irekiko duela Jokoen historian, ez direla aurrekoak bezain garestiak izango eta ingurumena ez dutela kaltetuko. Tamalez, badira bestela pentsatzeko arazoak. Hasierako aurrekontuak nabarmen egin du gora, eta ustelkeria susmoak daude antolaketa-batzordearen inguruan; joan den urrian, adibidez, Frantziako Poliziak Jokoen egoitza miatu zuen, hogeitazpi gutur-lanen esleipenei buruzko informazioa bilatzeko. Halaber, garraio publikoa ez da doakoa izango Jokoen irauten duten bitartean: alderantziz, txartelen prezioa bikoiztu egingo dela iragarri dute. Sarreren prezio altuagatik ere kezu dira herritarrak. Kirolari ospetsuenak haien hirian lehiatuko dira, baina jende askok ez du izango zuzenean ikusteko aukerarik.

Hori horrela, aurreikusitako daiteke Parisen Jokoen ez direla iragarritako jaia izango langile, txiro edo etxerik gabekoentzako. Jai itzela izango dira, bai, baina batez ere udal politikari eta erakuntza enpresentzat. Edozein modutan, faktura olinpikoa paristarren hurrengo belaunaldiak ordainduko du. ●



Stade de France, 1998an Saint Denisen inauguratua, izango da Olinpiar Jokoen erdigunea.

“ ”

Erakundeek ez digute lagunduko, guk geure hizkuntzan hitz egitea lortzen ez badugu

Judith Bilelo Biachó

Judith Bilelo Biachó gure artean izan zen iragan udazkenean, Garabideren Aditu programaren kariatara. Ekuatore Ginean jaioa (Malabo, Bioko, 1975), bubier etniako kide da, bubiera hitzun eta hizkuntzaren aldeko militantea. Iraganaz bezainbat mintzo da orainaz, geroari begira.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Esango al diguzu, faborez, zein duzun hizkuntza-biografia?

Nire lehen hizkuntza bubiera izan zen. Ama hizkuntza, esaten dena. Hala ere, espainolen kolonizazioak eskolara eraman espainola, eta eskolatik familietara sartu zen. Kolonizazioak zenbait onura ekarri zizkigun, baina gure kultura galbidera eraman zuen, gure izenak berak ere desagertzeraino. Espainolen kolonizazioak ez zuen zipitzik egin gure kulturara hurreratzeko. Aldiz, bere izaera espainola inposatu zigun, errepresioaren bidez. Bubieraz hitz egiten bagenuen, umiliatu egiten gintuzten, eta zigortzen. Gure gurasoek ez zekiten espainolez hitz egiten, baina ikasi beharra izan zuten, beren seme-alaben bidez, haiek haur es-

kolatik baitzeramaten espainola etxera. Gure herrietan, espainolak etxeko hizkuntza zartatu zuen. Haurrari eskolan espainola inposatu zioten, eta haurraren gurasoei bubieraz ez hitz egiteko esan zieten. Horrelaxe urrutiratu gara gu geure hizkuntzatik.

Zeure esperientziatik ari zara? Arbasoenetik, beharbada?

Aurreko belaunaldien bizi eskarmentua da, baina horren ondorioak bizi ditut nik gaur egun oraindik. Nik, izan ere, bubieraz hitz egiten dut, gurasoengandik ikasirik, eta, aldiz, nire seme-alabek ez dute hitz egiten. Iruditzen zait huts egin dudala eta, orain, galdutakoa berreskuratu behar dudala, beti bubieraz hitz

eginez eta nire inguruko motibazioari eraginez. Bestela, axolagabe jokatzen badut, ni espainolez mintzo, ondokoa ere espainolez, galduak gara, ez dugu geure burua egundo jasoko.

Eskolatik hasi zineten bubiera baztertzen, esan duzunez.

Bai. Gurean, herrian herriko eskolak dira nagusi, lehen hezkuntzaren garaian. Ez dago hirira joan beharrik, bigarren hezkuntza egiten hasi arte. Nik, esaterako, bubieraz egin nuen katekesia. Uste dut nire belaunaldia katekesia bubieraz egiten azkenetakoa izan zela. Gogoratzen naiz irakasleak mehatxu egiten zigula: “Bubieraz hitz egiten ez duenak ez du lehen jaunartzea egingo!”. Gu ikaragarri

motibatu gintuen horrek, eta bubieraz hitz egiten hasi ginen!

Katekesia bubieraz egiten azkenetakoa dugu, hortaz, zure belaunaldia?

Hor nonbait. Eliza espainolen kolonizazioarekin etorri, erlijio katolikoa indarrez ezarri, eta bertako sineste eta kulturak bazterrerara bota zituen: “Ez jokatu zeure aitaita-amamen legeen arabera, Jainkoaren legearen kontrakoa baita!”, esaten zuten. Eta geure kultura utzi behar izan genuen, eta kultura judu-kristaua geureganatu. Behaztopa horiek denak ezagutu ditu gure herriak.

Nola bazterrarazi zizueten bubiera eskolan?

Esate baterako, nik ez nuen zigorrik jaso espainolez hitz egiten ez nuelako, baina nire senideek bai; neba nagusiek, alegia. Barraskilo maskorrez –barruan simaurrez beteak–, egindako gorbata zikin bat sartzen zieten lepotik behera. Usain hark atzerakada eragiten zuen, jakina, eta bubieraz hitz egiten harrapatu zutenak lepotik behera sartuta eraman behar izaten zuen, harik eta bubieraz hitz egiten zuen besteren bati eman artean. Tratua, ezta?! Tratu txarra, alegia. Azken finean, hizkuntza gutxituetako hiztunek jasan duten tratua da. Indarrez nagusitu dira hizkuntza nagusiak.

Zure garaian zigorrik ez zenuela jaso esan diguzu.

Episodioren bat bizi izan nuen, hala ere. Nire garaian ere, galarazita genuen eskolan amagandik jasotako hizkuntzan, bubieraz, hitz egitea. Bazitekeen ikaskideok herri berekoak izatea, gela berean egotea, baina, hala eta guztiz ere, gure artean bubieraz hitz egitea debekatua genuen. Zigorra genuen mehatxu. “Hemen ez da bubieraz hitz egiten!”, esaten ziguten irakasleek. Betikoa, ezta? Harrapatuz gero, kuadernotzar bat ematen ziguten, behin eta berriz eta askotan esaldi bat kopiatzeko: “Debekatuta dago ikasgelan bubieraz hitz egitea. Debekatuta dago ikasgelan bubieraz hitz egitea. Debekatuta dago ikasgelan bubieraz hitz egitea...”. Zigor fisikoari dagokionez, behin sekulako zartailukada jaso nuen irakasle batengandik: aurpegian eman nahi izan zidan, eta eskua jarri nuen, masaila babestearren, baina ni jotzen asmatu zuen hala ere, eta marka daramat oraindik. Ez zait irakasle haren izena ahaztu! Bestalde, ikaskideok batak bes-



“Espainolen kolonizazioak ez zuen zipitzik egin gure kulturara hurreratzeko. Aldiz, bere izaera espainola inposatu zigun, errepresioaren bidez”.

“ ”

**Garabidek gure
hizkuntzaren
estandarizazioa
gauzatzen lagunduko
ahal digu!**

tea salatzen zera hura ere aktibatzen zuen: “Irakasle, halako eta halako bubieraz hitz egiten ari dira!”. Eta, onenean, halako haiek belauniko jarraraziko zizutzen, besoak gurutze. Hamaika holako! Dena dela, episodio hauek ez ziren lehen hezkuntzaren garaian gertatu, herriko eskolan, bigarren hezkuntzaren denboran baizik, hirian.

Eta zein duzue egoera gaur egun? Zu, izan ere, bubiera sustatzeko elkarte soziokultural bateko kide zaren

aldetik izan zara Garabiden...

Èvóvè/Èbóbè Elkarte Soziokulturaleko kide naiz. 2015ean sortu zuten, eta 2018an sartu nintzen bertan, adiskide batek gonbidaturik: “Goazen bilkura batera!”, esan zidan. “Zer bilkura ote da, bada?!”, pentsatu nuen. Eta joan, eta ongi-torria eman zidaten denek. Buberaren alde lan egin nahi zuten eta, baina-banaka, jende multzoa osatu zen. Bedeinkatua proiektuari ekin ziona! Ez nuen ezagutu, baina baten batek argitasun ez txikia izan zuen. Ia gureak egin zuela ikusi zuen, eta lanean jarri zuen jendea, gure hizkuntza eta kultura sustatzen. Orainxe hasi gaituzu indar pixka bat hartzen, eta hizkuntzaren egoerari buruzko diagnostiko bat ere egin dugu.

Zer dio diagnostiko horrek?

2015eko erroldaren arabera, 130.000 biztanle ginen Santa Isabel uhartean; lehen, Bioko zuen izena. 32ren bat herri ditugu, nahiz eta, egiazki, 28 herri diren, gainerakoak galdu egin baitira. Jendeak lekuak hustu ditu, eta hirira emigratu du baliabide hobeen bila, habitat atsegina-go bat aurkitu nahian-edo. 28 herrietan ere, gehienek buberaz hitz egiten dute... 15 urtetik gorakoek, bederen. Besterik da gaztetxoaren artean; gazteek neketan hitz egiten dute buberaz, eta galtzen ari da. Hortxe dugu arazoa, eta hortxe ari da saiatzen gure elkartea –gure ahale arabera, betiere–, herrietako kultur zentroetan ikastaroak-eta antolatzen. Hala ere, ororen buru, hizkuntzaren erabilera sustatu nahi dugu, eta bubiera estandarizatu ere bai.

Zer esan nahi duzu, bubiera batu bat, beharbada?

Idazkera estandarizatu bat behar dugu. Hemen egin duzuen bezala, batua. 28 herri garela esan dut, ubi herriak gara denak, bubieraz mintzatzen gara, baina barietate linguistiko ezberdinak ditugu. Hemen bezala, ezta? Ipar Euskal Herrian izan garenean, jakin dugu Aretxabaletan ez bezala hitz egiten dutela han. Berdin gertatzen da gure herrietan, hainbat hizkuntza barietate ditugu. Aniztasun horren barruan zortzi-hamar barietate-edo bereiz daitezke, baina denak dira bubiera.

Buberaren batasuna egin nahiko zenukete, hortaz.

Horrexen bila etorri naiz Garabidera, nasa hizkuntzaren kasuan egin dutena egin nahiko genuke guk ere, multzo



“ ”

**Gazteek neketan
hitz egiten dute
buberaz,
eta galtzen ari da**

dialektalak ezarri. Garabidek gure hizkuntzaren estandarizazioa gauzatzen lagunduko ahal digu! Idazkera batu erabakiko bagenu, huraxe irakatsiko genieke neska-mutilei: bat, batua, irakurtzeko eta idazteko. Baliteke hasieran elebitan jardun beharra izatea, baina, geroan, bubiera lehenetsi nahiko genuke. Horretan ere ari gara gure elkartean, filologoen, irakasleen, bubiera hiztunen eta ez hiztunen laguntzaz. Motibatuta dauden pertsonak dira, oroz gain.

Zertan da Ekuatore Gineako gobernuaren jarrera buberari dagokionean?

Ekuatore Ginean sei etnia ditugu. Herrialdea bi zatitan banaturik dago, kon-

tinenteakoa, batetik, eta uharteak, bestetik, eta batean eta bestean gara etniok: fang, ubi, annobones, fdembo, conubes – bisioa, bujebera eta balenquea ditu barietateak–, eta krioloak. Denok hitz egiten dugu pidjnglisha, baina hizkuntza hori nahiko gauza berria da, gure aitaita-amamek ez baitzekiten pidjnglishez hitz egiten. Esate baterako, gure familian, aitaita-amamei espainolez hitz egin, eta esaten zidaten: “Hi, aizan, espainola ez dun hire hizkuntza! Gainera, ez dinat ulertzen!”. Gurea bubiera zela eta bubieraz hitz egin behar genuela esaten ziguten. Gurasoen garaian, guk pidjnglishez hitz egiten genuela ohartzen zirenean, berdin, ez pidjnglishez hitz egiteko esaten ziguten, ez zela ofiziala, ez zuela baliok, eta, are, ulertu ere ez zigutela egiten.

Zein hizkuntzatan lan egiten du Administrazioak?

Espainolez.

Zein hizkuntzatan lan egiten du osasun sistemak?

Espainolez.

Zein hizkuntzatan da irakaskuntza?

Espainolez.

Zein hizkuntzatan dira hedabideak?
Espainolez.

Zein hizkuntzatan gauzatzen da kultura?

Etnia bakoitzak bere kultura du, eta bere hizkuntza.

Zer daramazu zure komunitatera Garabiden egin duzun egonalditik?

Gauza askok hunkitu naute, baina bat esango dizut. Gipuzkoan izan ginen, Donostiako udaletxean-edo, eta emakume baten historia kontatu ziguten. Elbira...

Zipitria.

Horixe! Elbira Zipitria! Horregatik esaten dut, bada, zorretan nagoela Gara-biderek. Emakume haren berri izan nuenean, euskara bere etxean irakatsi zuela, kartzela ezagutu zuela, baina, hala ere, euskaraz irakasten segitu zuela... Handia iruditu zitzaidan emakume haren jokaera! Ez da nire kasua, ni ez naute kartzelara sartuko inori bubiera irakatsi nahi izateagatik, zeren gaur egun hizkuntza guztiek eskubide berak dituzte, baina, hemendik joan eta gure elkartari su handiagoa eman nahiko nioke, eta erakutsi hemen jendeak kalean euskaraz hitz egiten duela, udaletxean, elizan -ni egondako elizetan, behintzat-, eta saltoki handietan.

Horixe ikusi duzu...

Ikusi dut euskaldunak asko zaretela zeuen herrietan. Bubiak ez gara asko, gu-txi baizik, bubiera hiztunok elkar maite dugu, baina gure proiektua antzintzen saiatu behar dugu, urrutiago heltzen. "Hitz egin behar dugu" esaten dugu, baina askotan ez gara urrutiago joaten, eta urrutiago joan behar dugu: sentsibilizazio kanpainak behar ditugu, lagunduko digun jende gehiago elkartean, eragi-

GUZTIOK BATERA

"Administrazioa batere arduratzen ez denez, geu ari gara, geure elkartetik, bubiera prestigiatzen saiatzen. Unescori esker ikasi dugu hizkuntza guztiek duintasun bera dutela, errespetua zor zaiela guzti-guztiei, eskubide berak dituztela. Ekuatore Gineako Gobernuak, one-nean, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatzen du. Edo iragartzen du, bederen. Baina besterik ez. Guk, aldiz, urte osoan zehar eguneroko ospatu nahi dugu gure hizkuntza, bubiera ikasteko ikastaroak antolatuz, ekitaldiak asmatuz, eta bubieraren erabilera bultzatuz. Orain arte, batzuk eta besteak saiatu dira bubieraren alde, baina nor bere aldetik ibili da. Batera lan egin behar zutela inork ez zuen pentsatu, non-bait, baina bada ordua guztiok batera saiatzeko!"

le gehiago. Erakundeen sostengua ere beharrezkoa dugu, baina erakundeek ez digute lagunduko guk geure hizkuntzan hitz egitea lortzen ez badugu, estandarizazioa lortzen ez badugu. Hori gertatzen denean, gobernua interpelatu ahal izango dugu, hizkuntza plangintza exijitu ahalko dugu politikan, administrazioan eta gainerako esparruetan. Inork ez digu

debekurik jartzen, baina hizkuntzaren ohiko erabilera bultzatu behar dugu. Gu-txi dakienak ere, erabil dezala dakientxo hori, bubiera hiztunok beti espainolez-edo hitz egitera behartu gabe.

Askoz ere emakume gehiago ikusi ditut Garabideko Aditu programa honetan, gizonak baino. Zertan da gizonetzkoa, zertan emakumezkoa, bubieraren aldeko lanetan?

Genero afera hori ez nuke askorik harrotu nahi... Nire hizkuntzan bada esatera bat: "Emakumeek hezten dute. Hezi emakumea, eta nazioa heziko duzu. Hezi gizonetzkoa, eta pertsona bat heziko duzu". Alegia, adieraziz gizonetzkoak ez duela bere heziera partekatzen. Etorriko da sorotik etxera, jarriko da telebistaren aurrean, eta hantxe. Emakumea, berriz, hamaika lanetan ibiliko da, batere gelditu gabe. Eta hizkuntzaren transmisioa ere amagandik heldu da. Gure amamak esaten zuena da: "Haurdun zaudenean, haurrak zure emozio, poz eta tristura guztiak bizi ditu. Hitz egiozu!"

Amama jakintsuaren mezu ederra, horratik!

Eta egia da, haurra mundura etortzen denean, bera garbitu baino lehen ere, amaren bularraldean jartzen digute, haurrak gure usaina aditzeko. Gero, bularra ematea etorriko da, eta orduantxe edoskiko du lehenengoz bubiera. Laster, samatik heldu eta hitz egingo diogu, uste baitugu samatik sartzen zaiola haurrari informazio guztia. Hurrena, begiratzen hasiko zaizu, irribarre egingo dizu... Horrelaxe izan da beti, eta horrelaxe egingez, amak familiagandik datorren jakituria transmititzen dio umeari. Baina aitak ere badu bere parte, ez du balio "Zoaz amari galdetzera!" esateak. Horrelakorik ez, faborez. ●



HAZIAK MINTZO:

HAZIEN LEZIOAK, LAN PRODUKTIBO ETA ERREPRODUKTIBOAK BEREIZTEAZ



MARTA BARBA GASSÓ

Haziekin hamaika metafora eta hitz joko egin dira. "Zerbaiten hazia izan", "proiektu baten hazia erein", "etorkizunerako haziak"... esamoldeak ezagun zaizkigu. Zerbait berezia dute haziek.

Mendebaldeko pentsamolde modernoaren oinarrian dauden zenbait kontzeptu, bereizketa eta dikotomia kolokan jartzen dituzte haziek. Izan ere, hazia era berean da uzta edo elikagai, eta hurrengo uztarako lehengai. Beste era batez esanda, haziak izan daitezke, alde batetik, jango ditugun babarrun, arto, edo pipak; eta, bestetik, aparte gorde eta hurrengo urtean ereingo ditugunak, horiei esker hurrengo uzta bat izateko. Izaera bikoitza dute, haziek, nolabait.

Baina pentsamendu moderno, kapitalista eta heteropatrialak ugalketa edo erreproduktzioa eta ekoizpena bereizi nahi izan ditu, ekoizpenaren logika (kapitalista) bizitzarenaren kontra jarririk. Ikuspegi horretatik, ekoizpena da etxetik kanpo eta soldata baten truke egiten den lana. Erreproduktzioa, aldiz, lan-merkatuak behar duen eskulana sortzeko eta mantentzeko egiten dena, trukean soldatarik, eskubiderik eta "lanaren" aitortzarik jaso gabe. Badirudi, berez, bi lan mota direla.

Bada, haziei begira jartzean, galdera suertatu zait behin baino gehiagotan. Hazi bat "sortzen" duzunean edo "ekoizten" duzunean, zer ari zara egiten, hazia edo barietatea erreproduzitzen, edota hazia ekoizten? Beste modu batez esanda, haziak gordetzeko lana zer da, lan produktiboa, ala erreproduktiboa? Beharbada, jateko babarrunak edo artoa landatzen ditugunean, nolabait, jango dugun produktu bat ekoizten ari garela esan dezakegu. Baina hazi bat ugaltzen dugunean hortik berriz ere haziak atera-



tzeko asmotan, zer egiten dugu zehazki? Ekoiztu? Ugaltu? Biak batera?

1988an Jack Ralph Kloppenburegek hazien hobekuntza eta pribatizazioari buruz idatzitako *First the seed* liburuan baieztapen argigarria egin zuen. Haziek, berez, dimentsio bikoitza dute, baina hazi hibridoek eta hazien patenteek hazien izaera bikoitz hori bereizi zuten; izan ere, mekanismo horiek galarazten dute edozeinek barietate horietako haziak ugaltzea, eta, hortaz, ezberdinak dira ereiteko saltzen diren "haziak" edo jateko saltzen diren "elikagaiak". Horrenbestez, mekanismo horien bidez heldu zen haziengana, alde batetik, ekoizpena, eta bestetik, ugalketa eta bizitza bereizten dituen begirada moderno kapitalista. Baina, zer gertatzen da oraindik bereizketa horretan sartzen ez diren elikagai eta haziekin? Alegia, zer gertatzen da urterik urte norberak bere etxean ugaltu, gorde, erein, jan eta landatu ditzakeen hazi eta elikagaiekin? Zer gertatzen da era berean elikagai eta hazi diren haziekin?

Esan bezala, haziekin ibili naizen hainbatetan galdera hau izan dut bueltaka buruan. Konturatu gabe galdera egitea

bera, nolabait, pentsamendu moderno dikotomiko horren tranpan erortzea dela. Ez al da interesgarriagoa galderari buelta eman eta pentsatzea zer esaten diguten haziek bizitzaz, ugalketaz eta ekoizpenaz? Etxean ugaltu eta gorde ditzakegun hazietan dimentsio horiek bereizezinak dira. Hala, kapitalismoaren eta patriarkatuaren kolonizazioa hazienganaino heldu den honetan, momentuz, oraindik badaude logika horretatik eskapatzen diren hazi asko eta asko, eta bizitza, ugalketa eta ekoizpena, hirurak ala hirurak, prozesu beraren ezinbesteko parte direla erakusten digute, horien arteko bereizketa kolokan jarririk. Beste era batez esanda, ekonomia feministak hainbatetan kolokan jarri duen ekoizpen-erreproduktzio dikotomia faltsua dela erakusten digute hazioek ere.

Ekonomia feministarentzat, ikusi bezala, inspiraziorako gai izan daitezke haziak. Ugalketari buruz ere asko esaten digute. Hazietatik tiraka ugalketaz saskonki hausnartzeko, baina, transfeminismoaren beharretan gaudela iruditzen zait... Baina horrek hazien bide berri batera garamatza eta, oraingoz, beste bate-rako utziko dugu. ●

A ZE FAUNA!

OSPEA EZ DA BETI ONA



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Euskal Herriko muskerren artean ez da handiena, baina ziur asko, bai ezagunena. Musker berdeak, izenak dioen moduan, gorputz berdea du oso, eta ugal garaian, buru eta lepo aldea urdinduak izan ohi ditu. Gainontzean, puntu beltz txikiz osaturik izaten du gorputza, baina bere berdetsuna ezkutatu gabe.

Arrak emeak baino handiagoak izan ohi dira (beti ere 13 cm baino txikiagoak), eta gorputzarekin alderatuta, burua handiagoa izaten dute. Emeek maiz bi marra zuri izaten dituzte bizkarraren bi aldeetara. Hortik bere izen zientifikoa: *bilineata*, bi marra dituelako.

Zomorrojale amorratua izanik, musker berdea belardi inguruetan topatu ohi dute sarri. Normalean, ekotonoa deitzen

zaien eremuan. Alegia, bi habitat ezberdinen mugan: horma eta belardia, basoa eta belardia, basoa eta horma... jatena bezain garrantzitsua delako eguzkia hartzeko eta babesteko leku egokiak izatea.

Bizitoki horiek izateak ere eragingo zuen, noski, muskerraren faman. Izan ere, baserri inguruetan, edota landa eremuetatik gertu bizi izan den jendeak segituan ezagutzen du narrasti eder hau. Bere zoritxarrerako, ordea, ospe guztiak ez dira onak, eta muskerrari famaren alde txarra egokitu zaiola dirudi...

Bernardo Atxagak *Obabakoak* idatzi zuenean aipatzen zuen muskerra belarritik sartzen zela belardian etzanda geldituz gero, eta pertsona tontotuta uzten zuela betiko, haren burmuina janda. Herri askotan, ordea, saltari finaren fama

MUSKER BERDEA

Lacerta bilineata

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 13 cm inguru asko jota (isatsik gabe).

NON BIZI DA? Belardian eta basoan, batez ere.

ZER JATEN DU? Ornogabe txikiak.

BABES MAILA: Europa mailan babestua.

jarri diote. Muskerrak kopetara saltatzen duela diote, eta ez dela askatzen zazpi herritako kanpaiak jo arte. Horregatik, jende askok beldurra dio muskerrari. Horregatik, eta sugerriarekin duen gertutasunagatik; muskerra dagoen lekuan sugerria egoten dela esaten baita herri batzuetan. Habitat berdintsua dutela ezin dugu ezkutatu, baina batak ez du zertan bestea ekarri atzetik, beraz, guztiz egia denik ere ezin esan. Muskerrak ez du pozoirik, noski, baina ahoz aho zabaldu izan da muskerraren horzka sugearena baino txarragoa dela. Ez du, beraz, lan eskasa horiek guztiak gezurtatu nahi dituenak.

Baina musker berdeetan baten bat famatua izan bazen, hori Hernaniko musker berdea izan zen. 1913an, Edouard Britten izeneko gazte britainiar bat Hernani inguruan ibili zen. Musker berde bat harriatu eta Europako herpetologiaren aitari bidali zion: George Albert Boulengerri. Hernaniko muskerra Londresko British Museum of Natural History-ra iritsi zen eta 1921ean publikaturiko *Monograph of the Lacertidae* famatuen ateratzen da. Beste behin, ospeak eraman zuen musker berdea: muskerrei buruz egiten den monografiko bikainenean agertzen da Hernaniko muskerra, famatu, baina hilik.

Kontakizun, istorio eta ipuin guztiek ez dute zertan egia izan, eta sarri giza-kiaren beldurra eta beldur horrekiko jarrerak bultzatzeko baino ez daude idatziak. Beraz, ahokotasuna jaso eta biltzea ederra bezain ezinbestekoa den bezala, kritikotasunetik begiratzea ere komeni izaten da, ueste okerrak alferrik zabal ez ditzagun. ●



Musker berde arra (buru urdinduna) eta emea (marraduna) ugal garaian.

GINKGOAREN IRRIMURRIKA ETA BARRE TTIKIA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Burua dardaratu eta ikaratu zigun ginkgoak (*Ginkgo biloba*). Lizarmakila denboran ginkgoa aspaldi galdutako zuhaitz espeziez jotzen zen. Bere hostoen fosilak ezagutzen ziren, beste arrastorik ez. Permiar garaikoa da, duela 280 milioi urtekoa eta XVII. mendera arte desagertua zela uste zen. Engelberd Kaempfer mediku naturalista eta bidaiari alemanak 1683 eta 1693 artean Persiatik Japoniara egindako ibilbidean topatu eta deskribatu zuen arte. Txinako basotxo bitxi batzuetan topatu zituzten ale batzuk; dioikoa da, zuhaitz batzuk zeharo arrak eta besteak zeharo emeak dira. 1730. urtean lehen ginkgoa landatu zen Europan, Utrecht, Herbehereetan. Gerora, bere forma arkitektonikoak eta hostajearen urrezko udazkenak osatutako uztarriak tiraka mundu guztira hedatu zen. Bere generotik iraun duen espezie bakarra da.

Espezie pankronikoa edo fosil biziduna esaten zaie horrelakoei: ustez desagertuta daude eta bat-batean ale bizidun batzuekin tril edo topo egiten dugu. Ustez, Txinako baso haietako ginkgoak naturalak baziren ere, azkenaldiko ikerketek azaleratu dute genetikoki oso hurbilak direla eta, ondorioz, noizbait landatutako basoak direla; baita milaka urte bizitzeko gaitasuna dutela ere.

Genetikara jota, ginkgoa guri irri ttikiz begiratzeko moduan dago. 2016an txinatar ikerlari talde batek *Ginkgo bilobaren genomaren zirriborroa* argitaratu zuen (*GigaScience* aldizkaria, Rui Guan



Japoniako Hiroshiman bonba nuklearra leherrarazi zutenean, aspalditik bizi zen ginkgo bat erre eta hurrengo urtean berriro zen. Berriro zen bizidun bakarra izan zen eta oraindik ere bizi da, argazkian ikus daitekeenez.

eta abar) eta 10.600 milioi DNA base nukleiko dituela argitu. Horrez gain, 41.840 gene inguru dituela aurreikusten da, bakterioen aurkako eta defentsa kimikoko mekanismo kopuru handia ahalbidetzen diotenak. Guk, pertsona ahalguztidunok, 3.200 milioi DNA base eta 20.000-25.000 gene besterik ez ditugu. Ginkgoaren ahalduntze genetikoaren herenaren eta erdiaren artean gaude...

Zuhaitz zaharren(etako)a dela esan daiteke, dinosauroak ezagutu zituena. Eta zer mendrena garen eta batez ere gure memoria argitu eta nor den gogorarazteko, frogatuta dago bere hostoak memoria txarraren aurkako erremedio-rik onena direla. Haizemaile edo abaniko itxurako hosto horiek gure hats bahitzea eta asma sendatzen dituzte; baita zuhaitzetan arrak eta emeak harreman sexualak nola izaten ote dituz-

ten pentsatze hutsak eta abarrek sortutako buruko minak ere; eta milaka urte bizitzeko gai diren zuhaitzak badirela eta gu zahar-xahartzen, ba zahartzaroren gaitzak ere arintzen ditu. Irrimurrika batekin esaten digu: botika oso ona naiz, natzaizue.

Bere berebiziko gaitasun gaitzak norainokoak izan daitezkeen ederki adierazten du: aspaldiko gerra erraldoi batean, Japoniako Hiroshiman bonba nuklear bat leherrarazi zutenean eta kilometrotan eta kilometrotan haberik zutik geratu ez zen hartan, aspalditik bizi zen ginkgo bat erre eta hurrengo urtean berriro egin zen. Berriro zen bizidun bakarra izan zen. Oraindik ere bizi omen da... Bakearen turismoko gune izendatua dute.

Gure mundua akabatuko dugu, gerraz gerra, eta ginkgoak hortxe iraungo du, fosil bizidun. ●

HAZIEN LIBURUTEGIA

LIBURUAK ETA HAZIAK, ABERASTASUN PUBLIKO



GARAZI ZABALETA

Urteak dira Nafarroan eta beste zenbait tokitan hazien liburutegi proiektuak martxan dituztela. Hazien liburutegiak, liburuaren liburutegietan. Euskal Herriko Hazien Sareak antolatutako hitzaldi batean izan zuen egitasmo horien berri Ane Leturia Delfrade Antzuolako liburuzainak, eta ideia berak kudeatzen duen liburutegira eramatea pentsatu zuen. Bertako haziak gordetzeko eta hartzeko txoko bat jarri dute liburutegian, edonoren eskura. Liburuak bezala, erabiltzaileek, nahi dituzten haziak har ditzakete etxean erein eta ugaltzeko.

GIPUZKOAN AITZINDARI

“Egitasmo honen bidez, jendeak bertako barietateen haziak eskura izateko gune bat sortu nahi dugu, baita trukerako espazioa bultzatzea ere”, azaldu du Leturiak. Clara Flamariquerekin, Nafarroako Hazien Liburutegiko koordinatzailearekin, harremanetan egon da liburuzaina, hango eredu herrirako baliagarri izanen zelakoan. Gipuzkoan ez du antzeko ekimenik ezagutzen, baina, nork daki, inguruan horrelako gehiago pizteko akuilu izan daiteke Antzuolakoa.

Proiektua herriratzeko asmoz, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek egin



dute haziak gordetzeko armairutxoa, arotzaren laguntzarekin. Bertan, Aleka elkarteko haziak jarri dituzte momentuz eskuragarri; Euskal Herriko baserritar agroekologikoen ekoiztako haziak. Eta haziak dituzten herritarrei gonbidapena luzatu diete, gordeta dituzten haziak bertara eramateko.

HAZIEN ARMAIRUAZ GAIN, EZAGUTZEN ELKARTURKEA

Bertako haziak eskuragarri jartzea eta elkartrukatzea bada zerbait, baina, gaian gehiago sakontzea garrantzitsua da liburuzainaren ustez. Horregatik, hazien ugalketari buruzko tailerra antolatu zuten liburutegitik: “Egitasmoaren helburua ziklikoa izatea da, alegia, haziak hartzen dituen pertsona horiek jakitea

horiek ugaltzen, eta bueltan hazi batzuk liburutegira ekartzea”. Donostiako Haziera fundazioko Marc Badalekin antolatu zuten hazien ugalketa tailerra. Azaroan, bigarren formazio saioa egingen dute, kasu honetan, hazien garbiketari eta biltegitratzeari lotutakoa, eta aurrerago, nekazaritzarekin lotutako ekimen gehiago etorriko dira.

Duela aste gutxi abiatutako bidea da Antzuolako liburutegiarena baina, momentuz, erantzun polita jasotzen ari da ekimena. Herriko kontsumo taldeko ki-deak eta ekoizleak bidelagun ditu, gainera. “Badirudi liburuak eta haziak ez dutela loturarik, baina haziak eta horien inguruko jakintza ere gure kulturaren parte direla azaltzean, jendeak azkar ulertzen du proiektua”, amaitu du. ●



“*Ekoizpen ekologikoak bermatzen digu naturaren baliabideak zaintzen ari garela, eta hori onura da gizarte guztiarentzat.*”

—
EDORTA SALVADOR
Okintza-prozesuetako aholkularia
eta irakaslea, IRUÑEA

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**



ARGIA-REN UZTA



Uzta jasotzeko erein egin behar izaten da. ARGIAk, bestea, beste, hiru liburu ditu martxan.

Garaian garaikoa azokan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Lekak, tomateak, piperrak... urte osoan dendetako paisaiaren parte bihurtu zaizkigu azken urteetan eta erosle gazteenok -30 urte inguruko gazteez ari naiz, gurasoen etxetik ateratzeko adina atzeratzen ari denarekin erosketak egiten hastearena ere atzeratzen ari denaren irudipena baitut- jada ez dakigu urtaro bakoitzean zein barazki den loratzen, zerk/noiz ematen duen fruitua. Azokatik pasatzen denak izan dezake, akaso, ideia garbixeagoa; herriko plazetako postu txikietan jartzen baitituzte oraindik sasoiko gutziak bistan. ARGIAk ere baditu ereinda aurtengo uztan biltzeko asmotan zenbait landare, eta azokan jarriko ditu salgai, heldutakoan.

Hezkuntzari lotuta Koldo Rabadan Izagirrek 2021ean ARGIArekin batera argitaratu zuen *Bidean* liburuak jarraipena izango duela jakinarazi berri digu-

te. Emozionatzeko, ikasleekin konektatzeko eta jakin-mina pizteko gai diren eskola eta irakasleak behar ditugula gogorarazi zigun duela hiru urte Rabadanek. Orain, bigarren uztan, haurrek dituzten eta gutxitan gorai patzen dizkiegun abileziak ekarriko dizkigu paperera, eta dituzten "super-botereak" aztertuko ditu kapituluz kapitulu: "ilusioa, hegan egiteko boterea, irria...", esate baterako. Lehenaren modura, umore puntuarekin eta irakurterraza izateko asmoz sortua, baina edukiz jantzia izango da.

Lurrari begira jarrita ere, Bizi Baratzeari proiektuak lanean jarraitzen du eta hazien inguruko liburu bat aurkeztuko dute udara aldera. Mundu mailako auzia dakar mahai gainera, burujabetzarako lehen urratsa baita hazia. Bestetik, gure lurretan haziak lantzeko, gordezko eta landatzeko argibide zehatzak

ARGIAko kideak korrika

Ez du hutsik egin ARGIAk Korrikaren 23. edizioan ere. Mendi aldean, Urnietak eta Lasarte-Oriak muga egiten duten aldapa beheara batean, egokitu zaio kilometroa lantaldeari. Ilunpean hartu zuten lekukoa, ohore handiz. ARGIA ez zegoen bakarrik lasterkaldian, Antza eta lametzako kideak ere korrika egiteko eta lekukoa eramateko gogoz joan ziren.



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

ematen ditu. Eta mikroargazkilaritzari esker, egunerokoan ia ikusi ere egiten ez ditugun haziak tamaina handian eta xehetasun guztiekin ikusi ahalko ditugu. Horrez gain, kosmetika osasuntsuari buruzko liburu argitaratuko du geldirik egoteko jaio ez zen Garbiñe Larreak. Sendabelarrak eta gainerako gai naturalak erabilita gorputza garbitzeko, hidratatzeko eta edertzeko kosmetikoak egiten erakutsiko digu liburu honetan.

Hizki Pizti eta *Jarioka* mahai-jolasak ere beren bidea egiten ari dira eta horri indartsu eustea da ARGIAren asmoa, aurkezpenak eginez eta, *Hizki Pizti*-ren kasuan, tailerren aukera ere eskainiz. Eta, nola ez, Inor ez da ilegala. Udarara begira kolore berriren bat iritsiko da kamisetetan eta negurako jertseren bat ere bai.

Hori eta askoz gehiago, azoka.argia.eus helbidean! ●

Fra Mauroren mundu zehatzagoa



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Venezia, 1459ko apirilaren 24a. Fra Mauro monje eta kartografoak bere munduko mapa amaitu zuen San Michele de Murano monasterioan zeukan kartografia taile-rreran. Portugalgo errege Alfontso V.aren enkarguz egin zuen lan hura, eta, mapa amaitu bezain pronto, Portugalera bidali zuten. Munduko mapa original hura galdu egin zen, baina bi kopia iritsi zaizkigu; hain zuzen, kopia bat egiten ari zela hil zen Fra Mauro hurrengo urtean, 1460an. Elizgizona izan arren, eta Veneziatik irten ez zen arren, garaiko maparik zehatzena osatu zuen.

Fra Mauroren munduko mapan hegoaldea goian dago. Mapen orientazioa konbentzio kultural hutsa da, denboraz aldatuz joan dena, eta, garai hartan, eremu kristauan, mapa askok ekialdea zeukaten goiko aldean, han omen zegoelako Edengo lorategia, erreferentzia puntua. Paradisua mapan sartu ohi zuten, gainera. Fra Maurok ere irudikatu zuen Edena, baina mapatik kanpo, beheko ezkerreko ertzean, apaingarri soil gisa ia. Toki hura "giza kokalekueetatik eta ezagutzatik oso urrun" zegoela idatzi zuen ohar batean. Ordurako islamdar munduan hegoalde-ora orientatutako mapak egiten zituzten, eta monje kristauak ez zuen erreparorik izan beste kultura eta erlijio bateko joera hura txertatzeko. Gainera, Veneziako ontziak hegoalderantz abiatzen ziren; hori zuten jomuga eta erreferentzia.

Mapak 3.000tik gora ohar ditu, tokian tokiko ohiturak, berezitasun geografi-



Ezkerrean, Fra Maurok 1459an amaitu zuen munduko mapa. Eskuinean, egungo satellite bidezko irudia, planetaren eremu bera orientazio berdiunean jasotzen duena.

koak eta egilearen prozesuaren nondik norakoak zehazten dituztenak. Ezer gutxi dakigu Fra Mauroren bizitzaz. Monjea izan baino lehen beharbada bidaiatu egin zuela uste dute adituek, baina garbi dute mapa osatu bitartean ez zela Veneziatik atera. Monasterioan liburu eta mapa bilduma zabala zeukan eskura, hau da, kartografiar garai horretan zegoen ezagutza teorikoa.

Baina ordurarte mapetan egiten ziren akats asko zuzentzea lortu zuen ezagutza praktikoa gehituta, itsasgizonei galdetuta, alegia. Besteak beste, Niccolo da Conti esploratzaile eta merkataria izan zuen informazio iturri, baina marinel veneziarrek zekitena biltzeaz gain, hainbat itsasgizon musulmani ere galdetu zien, baita Etiopiatik Veneziara joandako ordezkariak bati ere.

Eta horri esker ondorioztatu zuen Afrika hegoaldean ura zegoela, ez zela infinitura arte luzatzen eta Indiako ozeanoa ez zela barne itsasoa, Ptolomeoren garaitik uste zen bezala. Kontinentea itsasoz inguratu zitekeela, alegia. Asiara iristeko bide alternatiboa izan zitekeen hura eta garai hartan horren behar handia zegoen, lehorreko bidea ia etenda baitzegoen; aurreko mendean Izurri Beltzak triskantza eragin zuen, Txinan mongoliar dinastiak gainbehera egin zuen eta turkiarrek Mediterraneoa blokeatuta zuten.

Une hartan inork ez zuen aprobetxatu Fra Mauroren hipotesia, baina handik hamarkada batzuetara, 1488an, Bartolomeu Dias portugaldarra Esperantza Oneko lurmuturrera iritsi zen, eta sineskeriak baztertu eta ezagutza enpirikoari helduta, fraide hark arrazoi zuela egiaztatu zuen. ●

Nabigazioaren historiaren argazkia

2019an, Greziako Kasos uharterko uretan, ikerlan bat abiatu zuten Ikerketa Helenikoen Fundazio Nazionalak eta Greziako Kultura Ministerioak. Lanaren emaitza berriki jakinarazi dute: guztira, hainbat garaitako hamar ontzi-hondar aurkitu dituzte. Zaharrenak 5.000 urte inguru ditu eta berriena Bigarren Mundu Gerra garaikoa da. Tartean, besteak

beste, greziar, erromatar, bizantziar eta otomandar ontziak daude. Gainera, gehienetan kargamentuaren arrastoak geratzen dira. Lau urtez luzatu diren lanetan 20.000 argazki inguru atera dituzte eta, hala, argazki horiek guztiak bat eginda, Mediterraneoko nabigazioaren historiaren argazki xehea lortu dute. ●




GREZIAKO KULTURA MINISTERIOA

UXUE ALBERDI: HAMARKADA BI IDAZTEN (II)

Zer diosku kilkerrak belarrira?

Uxue Alberdiren ibilbide literarioa aztertu genuen aurreko artikuluan. Helduen prosazko literaturaz aritu ginen orduan, eta gaurkoan, liburu hibridoaz arituko gara, album ilustratuez, bertso ilustratuez eta komikiez. Sarritan, helduak aurreiritziei emanda bizi gara eta, material eder, sakon eta bereziak galtzen ditugu arrazoi horregatik. Irudiekin egindako edozein material baztertzeko ohitura dugu, haurrentzat eginak direla pentsatzen baitugu (eta oro har haur literaturari balio gutxi ematen diogulako). Eta izan ginen haurra ahaztuta dugunez, edo gure barruko haurrari kasu gutxi egiten diogunez, uste dugu liburu horiek ez direla guretzat.



AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Haur literaturan ekarpen ugari egin duen idazlea da Alberdi. Besteak beste, Maite Mutuberriak ilustratutako *Zure denboraren truke* (Elkar, 2013) eta Aitziber Akerretak ilustratutako *Txikitzen zaretanean* (Pamiela, 2013) liburuak haurtzarori eta gurasotasunari buruz hitz egiten dute. Helduen mundua hankaz gora jartzen da haurren begiradatik kontatua denean. *Lur eta amets* bildumako liburuak 2015-2016 bitartean argitaratu zituen eta bi protagonistak Euskal Herriko hainbat pasarte historikoetan aurkituko ditugu. Axpirekin egindako *Zorri zoragarriak* (Elkar, 2022) edo Bruno Hidalgok ilustratutako *La belle* (Elkar, 2022)

dira argitaratu dituen azkenetarikoak.

Baina helduentzako zein etxeko txikientzako izan daitezkeen hainbat lan ere eginak ditu, interesgarriak, originalak, desberdinak eta arimarako eginak direnak. Horieta jarriko dugu fokua.

Aurreko artikuluari segida emateko asmoz, argitaratu duen azken liburuari erreparatuko diogu. Izan ere, album ilustratua izan gabe hibridotasuna jasotzen du. Berak dioen bezala, ahoz kontatuak, belarriaz jasoak eta idatziz emanak dira *Belarriko kilkerra* (Elkar, 2023) liburuan idazleak aurkeztu berri dituen pasadizoak. Mende oso bat hartzen dute ipuinek, eta, beraz, memoria eta transmisio

ariketa bat ere bada, ahoz kontatzen baitira sarri inon idatzi ezin daitezkeen kontuak. Begoña Durrutik ilustratu ditu anekdotak eta entzungai daude sarean. Entzutea da Uxue Alberdik idatzi aurretik liburu honetan egin duen ariketa nagusia eta ahozkotatzen hori da idatziz transmititu nahi izan diguna. Autorearen hitzetan, jolas bezala egindako lana da, baina istorio bakoitzari kontalariren tonua, esaerak, erritmoa, kadentzia propioa sortzeko tresna ugari behar dira eta ez da erronka makala. Irakurle talde



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

batean testatu dugu eta primerako harriera izan duela esan dezaket. Gustatu egin zaie, freskotasuna duela diote eta identifikatuta sentitzen direla aipatu; barre egin dute eta harritu ere egin dira. Beste liburu batzuk ere entzute ariketatik abiatutakoak dira, hala nola, *Aulki-jokoa*, *Jenisjoplin*, *Kontrako eztarritik* eta *Dendaostekoak*. Nahiz eta gero baikoitzak forma desberdina hartu duen.

Maite Gurrutxagak ilustratutako *Besarkada* (Elkar, 2015) album ilustratua berezia da oso. Kopla zaharren forma dute testuek: lehenengo bi ahapaldietan naturako irudi bat agertzen da (haizea, amapola bat, ibaia, lore urdin bat, ura...). Bigarren ahapaldietan mezua zuzenagoa da, kasu honetan besarkadarekin lotuta dagoena. Efektu poetiko ederra sortzen du, besarkaden samurtasuna, goxotasuna, intimitatea maitasuna transmititzen baitute kopla hauek. Norbaitek norbaiti irakurtzeko moduko liburu da; helduak txikiari edo maitaleari irakur diezaiokeela iruditzen zait, edo txikiak gurasoari zein lehengusuari irakurtzeko modukoa dela. Izan ere, Alberdik bidaia bat proposatzen digu eta lehenengo koplantik azkenengora al-

daketa bat egiten da: *Egin zaidazu toki txiki bat/ zure besoen artean* (1) eta *Nahi al zenuke toki txiki bat nire besoen artean?* (10). Modu honetan, irakurtzen duenak besarkada bat “eskatzen” hasi du irakurraldia eta besarkada bat “eskaintzen” bukatu du irakurraldia. Ahoa bete egiten da liburu honekin. Ruben Caballeroren musikarekin eta Alberdiren beraren eta Eñaut Elorrietaren ahotsekin sortutako abestiak bihotza bete-bete egiten du. Bake sakon batean murgiltzen zaitu lo-kantak. Liburu honekin irabazi zuen Uxue Alberdik Haur eta gazte literaturako Euskadi saria 2016an. Baina haur eta gazteentzat ez ezik, maite duzuen edonori egiteko moduko oparia izan daiteke.

Poza (Elkar, 2018) liburuak, hartu bezain azkar, bitxikeria bat duela konturatuko gara. Ezohiko formatuan argitaratuta dago (estua eta luzea da), Eider Eibarren ilustrazio koloretsuekin ondua. Ez da gutxiagorako, izan ere, pozari egindako bertsoek osatzen dute liburuak. Alaia eta arina da, lirikoa. Irudiz eta hitz jolasez osatua. Bizitzako gauza txiki-handiez ari da, irribarre txiki-handiak ateratzen dizkiguten horiez hain zuzen

ere. Iban Urizarrek egindako musika-rekin entzun daiteke abesti forman sa-rean. Goxagarria benetan.

Hili (Elkar, 2021) liburuak Aritz Me-sanzak ilustratu du. Hondo zuriaren gainean beltzez egindako ilustrazioek ezin hobeto akonpainatzen dituzte letrak. Bizitzari eta heriotzari buruzko galderak eta hausnarketak jasotzen ditu liburuak. Zorrotzak dira batzuk. Filosofikoak eta sakonak gehienak. *Noiz hasten gara hiltzen?* edo *hiltzea alderantziz jaiotzea da?* edo *zer dago hil eta gero?* – ezer ez – eta *pixka bat urrunago?* Unibertsoarekin lotutako erreferentziak egiten dira, kosmogonia propio bat erakutsiz: *Izarretan dauden hilak itzali egiten al dira goizean?* edo *Zeruan daudenak ez al dira erortzen?* Eta animalien heriotza nolakoa izango den irudikatzen animatzen gaitu umore zantzua ere baduten galderekin: *Hildako txoriak zeruan lurperatzen dituzte?* edo *mantsoago hiltzen al dira karakolak erbiak baino?* Harriak, haizea, euria nola hiltzen diren ere galdetzen digu Alberdik. Erantzunik gabeko galdera asko daude liburuan. Bideo formatuan ere aurkitu daiteke sarean eta material oso erabilgarria izan daiteke. Heriotza tabua den jendartean haur eta helduok irakurtzeko liburuak, tripak uzurtu eta bihotza hunkitzen zaigun bitartean.

Bukatzeko, Alberdik idatzi duen lehenengo komikiaz arituko gara: *Surflaria* (Ikastolen elkarteak, 2023). Hainbat komiki egin dituen Susana Martin ilustratzaileak egin ditu irudiak. Bizitza eta heriotzaren inguruko lana da *Surflaria*. Iragana eta oraina nahasten diren egoera bat aurkeztuko digute autoreek. Existentialismoa eta umorea nahastuko dituzte. Arin irakur daitekeen komikia da, baina badauka patxadaz irakurtzeko motiborik. Irudiekin egiten diren metaforak, koloreen erabilerak eta tratatzen dituzten gaiak badutelako tempo motelago bat. *Xabiroi* aldizkarian zortzi ataletan banatuta argitaratu zen hasiera batean eta 2023an argitaratu zuten album formatuan. Didaktikoa, sakona eta beharrezkoa delakoan nago.

Ipuin, eleberri, saiakera edo kronika. Kopla ilustratu, album ilustratu edo komiki. Haur eta gazte literatura, anekdota eta pasadizo. Aipatu ez ditugun hainbat itzulpen lan. Hamarkada bitan hamarnaka liburu idatzi ditu Alberdik. Etorriko direnen zain geratuko gara bitartean. Segurua baita idazleak idazten segitzea duela bizibide. ●


Zinearen historiako film-kontzerturik "onena"

Oscar sari andana jaso zuen *The Silence of the Lambs* (1991) thriller-a zuzendu zuen Jonathan Demme (1944-2017) zinegile estatubatuarrak estreinatu zuen zineak inoiz eman duen kontzerturik onena: 1970eko hamarkadaren erdialdean New Yorken eratutako Talking Heads taldearen *Stop Making Sense* emanaldia.

 JULEN AZPITARTE

Aurten, 40 urte betetzen dira filmaren estreinalditik. Demmek film-kontzertuen edizio, planifikazio eta eszenaratzea goitik behera aldatu zituen lan horren bitartez, eta, bidenabar, ordura arte grabatutako musika-zuzeneko filmatuen generoa irauli zuen. Bada, 40 urteren ondotik, 4k Ultra Definizio Handiko bertsio berreginean ikusteko aukera dago martxotik aurrera, A24 ekoizpen-etxearen eskutik. Horregatik guztiagatik, filma mitikotzat jotzen da bere generoan, IMDb eta Metacritic webguneek eman dioten puntuazioari erreparatzea baino ez dago; 8,7/10 eta 94/100 hurrenez hurren.

Horrekin batera, David Byrne musikariak *Girlfriend Is Better* doinuaren erabilitako janzki erraldoia, zeinak Japoniako Noh antzerkiaren eragin nabarmenak erakusten dituen, pelikularen eta taldearen ikono bilakatu da. Filmean abeslariaren burua ahalik eta txikiena ateratzeko erabili zuten baliabide hori, zeina taldearen identitate zeinu bihurtu den betirako. 2014an, *Time* aldizkarirako egindako elkarrizketa batean, ideia nola



bururatu zitzaion gogoratu zuen Byrnek: "Japonian nengoen biran, eta Japoniako antzerki tradizionala ikertzen ari nintzen: Kabuki, Noh, Bunraku... Eta, aldi berean, pentsatzen ari nintzen zer jarri gure hurrengo birarako. Orduan moda-diseinatzaile lagun batek (Jurgen Lehl) esan zidan bere tonu ironiko tipikoan: 'Beno, David, dena

da handiagoa agertokian'. Keinuez eta horretaz guztiaz ari zen, baina nik ideia negozio-jantzi bati aplikatu nion".

Filmaketan parte hartu zuen zineko beste izen garrantzitsuenetako bat Jordan Cronenweth (1935-1996) argazki-zuzendaria izan zen, zeinak, besteak beste, *Blade Runner* (1982) zientzia fikziozko film klasikoan parte hartu zuen.

BYRNE, BERRIKUSIA

"Pertsonaia bati begira egongo balitz bezala da ia-ia. Nahiko urrun nago. Pertsona horren elementuak gordetzen ditut, baina ez dena. 'O, zer lotura dago begiratzen ari naizen izaki horren eta nire artean' pentsatzea bezalakoa da", esan zuen Byrnek iragan abenduan *New York Times* hedabideari emandako elkarrizketa batean, filmaren berrestreinaldiaren harira, nostalgia izpirik erakutsi gabe.

Haatik, Byrneri deigarria iruditzen zaio, 20 eta 30 urte edo gutxiago dutenek, filma ikustean, nolabaiteko esanahia aurkitzen diotela. "Duela gutxi taldearekin (filmaren) prentsari kasu egiten ari ginela, hauxe esan zuen Jerry Harrisonek (taldekideak): horren arrazoia, neurri batean, izan daiteke egin genituen gauza asko oso analogikoak zirela". Eta adibide bat jarri zuen: "Argiztapena: gehiena ez da 1930ean egin ezin zitekeen ezer. Teknikoki ez dago 1980ko hamarkadaz hitz egiten duen ezer. Ez dago musika-aro jakin batean sustraituta".

ZAZPI KAMERA, LAU EMANALDI

1983an, Jonathan Demme bere lehen film handia filmatzen ari zen, *Swing Shift* (1984). Aurrekontu handiko lana izanagatik ere, sasoiko izar Goldie Hawn-ek parte hartu zuen pelikulan. Baina Demme amorratuta zegoen, egitasmoak ez baitzuen bere asmo artistikoak asebetetzen. Hala, biziki gorrotatzen zuen lan hura, eta beste bat egin nahi zuen, agian zikiagoa, baina askoz dibertigarriagoa.

Zinegile estatubatuarra maiteminduta zegoen Talking Heads-ekin eta bere musikarekin, urte hasieran bandaren zuzeneko ikusi zuenetik. Horiek horrela, Byrneren presentziak eta musikak sorginduta, bururatu zitzaion agian ideia ona izan zitekeela bere kontzertuetako baten pelikula bat egitea: 1975az geroztik aktibo zegoen taldearen atzera begirako moduko bat filmatzea zen bere asmoa. Martin Scorsese-ren *The Last Waltz* edo Neil Young-en *Rust Never Sleeps* klasikoen mailako zerbaitekin egin nahi zuen, betiere bere ikuspegi zuzen eta zintzotik abiatuta.

Hala, David Byrne (abeslaria eta gitarra), Tina Weymouth (baxua), Chris Frantz (bateria) eta Jerry Harrison (teklatura) lau kontzertu eman zituzten 1983ko Gabonetan, Los Angeles hiriko Hollywood Boulevardeko Pantages antzokian, eta Demmek laurak filmatu zituen, zazpi kameraren laguntzaz. Hala, filmeko kantuetan kontzertu guztietako audio eta bideo pistak erabili zituen zuzendariak, baina muntaia hain da fina jau-

ziak kasik hautemanezinak baitira. Soinu pistei dagokienez, filma aitzindaria edo berritzailea izan zen digitalizazioaren arloan, soinua digitala zuen lehen pelikuletako bat izan baitzen.

Lehenengo kontzertuan kamerak ohol-tzaren ezkerreko aldean jarri zituen zuzendariak; bigarrenean, eskuinean; eta beste bi emanaldietan askotariko irudiak hartu zituen, kamera-tiro ezberdinak baliatuta. Demmek bosgarren kontzertu bat grabatu nahi izan zuen, ikus-entzulerik gabe, aretoa hutsik zela, baina musikariek ezezkoa eman zioten, taldearen "energia" bestelakoa izan zitekeelako zuzeneko faltsu batean.

Plano luzeen aldeko hautua egin zuen zinegileak, sasoiko bideoklipetan nagusi zen plano laburrekin jositako muntaia azeleratutik aldentzeko. Kontzertu bat zuzenean ikusteak dakarren esperientzia errealean murgilarazi nahi zuen ikus-entzulea, eta, horretarako, ikus-entzulearen begirada iradokitzen zuen plano finkoa lehenetsi zuen: plano luzeak, denboran sustengatuak. Areago, publikoaren irudiak saihestu zituen, muntaiari kalte egiten zitelako; izan ere, kontzertura bertaratutako jendea erakustea telebista-komedietako barre grabatuekin alderatu zuen Demmek. Hori dela eta, agertokian zentratu zuen bere soa. Erabaki tekniko eta estetiko horiek, gainera, oso lagungarriak izan ziren David Byrneren teatraltasuna nabarmentzeko, haren keinu eta koreografiak azpimarratzeko.

Beste ezaugarri nagusietako bat, filmarena baino gehiago zuzenekoarena, kantuen aurkezpena da: kantu bakoitzarekin taldekide edo instrumentista bat taularatzen da. Hala, emanaldia David Byrnerekin hasten da, bere bakarkako *Psycho Killer* ezaguna jotzen eta abesten, gitarra akustikoaz eta irrati-kaseteaz hornituta, eta ikuskizunak aurrera egin ahala agertokia muskariz betetzen da, zuzeneko erabateko musika-espektakulura iritsi arte, musika eztanda bihurtzeraino. Hala, taldea eta abestiak aurkezteko manera eta Demmeren muntaia ausarta ezin hobeto uztartu ziren. Sinbiosi perfektua.

1984ko apirilaren 24an estreinatu zen filma, San Frantziskoko Nazioarteko Zinemaldian, ikus-entzuleak eserlekuetatik altzarazita eta parranda bizian. Eta kritikariak liluratuta geratu ziren. Espainiako *El País* egunkariako Angel Fernandez-Santos zine-kritikariak hauxe idatzi zuen 1987an: "Gaur egungo bideokliparen zizkadurak eta rock erritoaren eta zinema musikalak zulatutako bideen arteko topaketa hunkigarriarik ezak (...) bide bat aurkitu dute film apal honetan. Espero zenaren atzetik, ustekabera garamatza bide horrek; erraztasunaren atzetik, konplexutasunera; dokumentuaren atzetik, fikzio-ara; itxialdi klaustrofobiko baten atzetik, askatasunaren eztanda lasaira".

Talking Headsen musikaz ezer gutxi aipatu da artikuluan; ordainean, *Remain In Lights* albuma jartzea gomendatzen da, abiapuntu gisara. ●





Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															



EZKER-ESKUIN:

- 1. Hesi. Azpiko, mendeko. 2. Doministiku. Toki horretako. 3. Euli mando. 4. Martxoaren 14tik 24ra Euskal Herri osoa zeharkatuko duen euskararen aldeko ekimena (argazkian). 5. Bera. Buru nahaste, zoramen. 6. Zerbaitek bere buruaren inguruan egiten duen higidura. Eztabaidaka. 7. Ustea, ikuspuntua. Lumatxa, lastaira. 8. Taninoak. Berritsu, hitzontzi.

GOITIK BEHERA:

- 1. Hegaztien gorputzaren kanpo estalkia. Informazio unitate. 2. Nafarroako urtegia, Aragoi ibaiaren ura biltzen duena. Haserre, amorrua. 3. Intziria, auhen. 4. Ondora joan. 5. Abagune, aukera. Atziki toponimikoa. 6. Hurbil. Maiz errepikatzen den keinu. 7. Ertzaintza. 8. Gaixobera, gaixoti. 9. Kontsonante errepikatua. Gipuzkoako herria. 10. Bostgarren bokala errepikatuta. Arrautza forma duena, arrauzkara. 11. Larruazaleko orban txikia. 12. Tamaina handiko hegaztiak. 13. Egongela, aretoa. 14. Nafarroako herria, Iruñeko merindadean. 15. Nazionalsozialista.

Sudokua

ERRAZA



		9	3	1	6		4	
	2	6		5			3	
3	8	1						
9		3		6	7	8		
	6			3		7		1
	1	4		8	5		6	3
6	3		7	9				2
	4	7		2				9
2	9		6	4		3	7	5

ZAILA

2	6	3				4		
	5		2				3	
			4	1				
		5		2				
9	4							3
			6	5				
		7	5	8			2	1
5		2	1				8	
	8		9		2		4	

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Irmo, finko
- Aldarte
- Seme nagusi
- Zakar
- Putz, sabel-haize
- Gai, zer
- Su eman, piztu
- Nori
- Urratsak emanez
- Gorengo alde
- Gaizto
- Motel
- Era, modu

FERMU
MOLDE

EBAZPENAK

BAINO HOBEA.
ETXEKO OGIA
AUZOKO ARTOA,
ATSOTZITZA

6	8	1	9	3	2	7	4	5
5	3	2	1	4	7	6	8	9
4	9	7	5	8	6	3	2	1
3	2	8	6	5	9	1	7	4
9	4	6	8	7	1	2	5	3
7	1	5	3	2	4	8	9	6
8	7	9	4	1	3	5	6	2
1	5	4	2	6	8	9	3	7
2	6	3	7	9	5	4	1	8

ZAILA

2	9	8	6	4	1	3	7	5
1	4	7	5	2	3	6	8	9
6	3	5	7	9	8	4	1	2
7	1	4	2	8	5	9	6	3
9	5	3	1	6	7	8	2	4
8	6	2	9	3	4	7	5	1
3	8	1	4	7	2	5	9	6
4	2	6	8	5	9	1	3	7
5	7	9	3	1	6	2	4	8

ERRAZA

- ESKER-ESKUIN:** 1. LEZOI, PEKO, 2. USIN, HORKO, 3. MANDEULI, 4. KORRIKA, 5. HURA, ZOROTASUN, 6. BIRA, TIRABIRAKA, 7. IRITZIA, MATAZ, 8. TANUAK, KALAKARI.
- GOITIK BEHERA:** 1. LUMA, BIT, 2. ESA, HIRA, 3. ZINKURIN, 4. ONDORATU, 5. ERA, ZA, 6. HUR, TIK, 7. POLIZIA, 8. ERIKOR, 9. KK, ARAMA, 10. OOO, OBAL, 11. TITA, 12. ARAK, 13. SALA, 14. UKAR, 15. NAZI.



Konplizitatearen lekuko

✂️ UXUE GUTIERREZ LORENZO 📷 ASIER CORERA / LORALDIA

Ikuslerik gazteena zu izango zara". Arriaga Antzokiaren kanpoaldean ama batek bere alabari esandako hitzak. Neskatoak 7-8 urte izango ditu, eta beranduago baieztatu dut ez dela kontzertuko ikuslerik gazteena izan. Haur, gazte, heldu... adinak adin, emakume asko daude Neomaken kontzertua ikusteko esperoan. Nabarmen dira gehien-go. Kasualitatea? Ez dut uste. Oholtzan sei emakume ikusiko ditugu, eta publikoan makina bat. Irudi esanguratsua.

Aurtengo Loraldia festibalaren ekin-tzetako bat da Neomaken kontzertua. Jaialdiaren 10. edizioa da aurtengoa, eta hogeit eguneko Bilbo euskal kultura garai-kidearen erdigune bihurtzea du helburu jaialdiak.

Amets Ormaetxea, Alaitz Eskudero, Leire Etxezarreta, Irati Gutierrez, Gara-zi Otaegi eta Eneritz Aulestia Mutiozabal dira Neomak. Kepa Junkeraren sorginak izandakoek indarrez ekin diote

proiektu berriari. Hasieratik aurreratu dute kontzertuaren ardatza: zaharra berritzera datoz, betiko kantutegia eta soinuak gaurkotzera.

Maoizko prakak eta alkandora zuria jantzita sartu dira seirak, bitxi, urre, makillaje eta orrazkera indartsuz atonduta. Oholtza gainean ekin ordez, publikoaren sarrerako ateak baliatu dituzte emanaldia abiatzeko. Eszenatokia hartu eta berehala esker oneko hitzak eskaini dizkio publikoari Eneritz Aulestiak. Eta, bereziki, pertsona bati: "Ez dakit nondik zabiltzan, Kepa, baina badakit hemen zaudela. Eskerrik asko, bihotzez". Trikitia, panderoa, ahotsa eta mugimendua. Horrela abiatu da akelarrea.

75 minutuko emanaldi zirrargarria ondu dute sei musikariek. Doinu sarkor-rrak, pasioz beteriko dantzaldiak, tentuz landutako kantuek eta konplizitatearen nahia. Giro magikoa sortu da antzo-

NEOMAK

NOIZ: martxoaren 14an.

NON: Bilboko Arriaga antzokian.

kian, eta konplize bilakatu da publikoa. Irribarretsu, nabari da zenbat gozatzen duten musika. Sintonian eta sinkronian mugitzen dira oholtzan.

Kontzertuaren erdialdera osatu du-ten *sobremesa* izan da momentu berezietako bat. *Abadiño Sanblasetan*, *Madalen Buzturingo* eta *Xorieri mintzo zen* kantuen bertsio propioa eskaini dituzte taldekideek, baita *sobremesa*-ren irudia osatu ere. Eskuekin kolpatu dute mahaia eta *a capela* kantuan jantzi dute bazkalosteko itzulgingurua.

Konplizitateak eztanda egin du kontzertuaren bukaeran. *AIOIAI* kantuan Sua taldeko Ane eta Janire izan dituzte oholtzakide, eta sorginkeriara batu dituzte beste bi emakume. Azken kantuek, *XXI. Mendekua*, antzokietan ezohi-koa den irudia lortu du: eserlekuetatik altxa eta kantuan eta dantzan bukatu du publikoak. Akelarre berezia, zaharra berritzera datozenen eskutik. ●



LIBURUA

Viriditas berdea da



VIRIDITAS

AINA S. ERICE (idazlea)
ETA AMANDA MIJANGOS
 (ilustratzailea)

A FIN DE CUENTOS, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Viriditas tituluaren azpian *Landareen mundu zoragarria ikusarazi ziguten emakumeak* azpitolua irakur dezakegu. Tapa gogorra duen liburu handi bat da, zeinetan landareen eta emakume baten ilustrazioek hartuko duten lila koloreko portadaren erdigunea. Suma daiteke liburuaren edukia, gutxi gorabehera.

Egiturari dagokionez liburu sei kapitulutan banatuta dago. Kapitulu bakoitzak landareen munduarekin hainbat modutan lotura duten gaiak lantzen ditu. Gai bakoitzari sarrera txiki bat egin ostean, aditu diren hiruzpalau emakumeren biografiak kontatuko zaizkio irakurleari. Eta, gainera, zenbait landareren inguruko informazioa tartekatzen du. Hau guztia kolore pastelez egindako ilustrazio eder eta armoniatsuek lagunduta, botanikako irudi horien gusua gogoraraziz.

Honela dio sarrerako lehenengo leerroak: *Mundu guztiari gustatzen zaizkio landareak. Ez, ez naiz esajeratzen ari: ezagutzen duzu inor patata frijiturik, txokolatezko izozkirik edo arto- krispetarik jaten ez duenik?* Jaten eta egiten ditugun gauza askoren landare jatorria gogorarazten digu; inork landareak gutxiesteko asmoz ireki badu liburuau rreiritziak albo batera uzteko gonbidapen modukoa eginda. Emakumeen eta landareen arteko harreman estua ere gogorarazten digu sarrerak. Landareen zein landareak zaindu, ikasi, marraztu, landatu eta sukaldatu dituztenen garrantzia azpimarratuz.

Lehenengo kapituluan landareekin sendatzen zekiten emakumez hitz egin digu Aina S. Ericek. Santa bezala ezaguna den Heildergarda Bingengoa aipatzen du kasu honetan. Erljioarekin soi-

lik lotu nahi izan den figura bat izan den arren, poesia idazten zuen eta musika konposatzen. Pentsalaria eta medikua zen besteak beste. Landareak ilustratu dituzten emakumeen omenez egindakoa da bigarren kapitulua, eta landare bila mundua esploratu dutenen omenez egindakoa hirugarrena. Botanika, ereintza eta janaria eta lurraren haziak dira hurrengo kapituluen edukiak. Miren Agur Meaberen *Itzulerak* liburuan agertzen den Martija de Jauregi pertsonaia historiko erreala ere izan zitekeen liburu honen parte. Beste asko bezala.

Liburu bitxikeria bat eta altxor bat da. Modu pedagogikoan emakumeoi lapurtu diguten genealogia eta ezagutza berreskuratzeko ahalegin ederra. Gurean ere badago zer berreskuratua. Haurrentzat, gazteentzat eta helduentzat interesgarria. ●



MUSIKA

Osasun publikoko kontua



KURSAAL

OASIA

BACHEN 'PASIOA, SAN JOANEN ARABERA'

La Cetra Barockorchester & Vocalensemble Basel.

Zuzendaria: Andrea Marcon.

Bakarlarriak: Jakob Pilgram (tenorea), Christian Wagner (baxua), Shira Patchornik (sopranoa), Sara Mingardo (kontraltoa), Mirko Ludwig (tenorea), Francesc Ortega (baxua), Guglielmo Buonsanti (baxua).

Lekua: Kursaal Auditorioa (Donostia)

Data: martxoaren 19a.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Elkarriketa batean, Sviatoslav Richter errusiar piano-jole handiak esan zuen Bachen musika entzutea osasun publikoko kontu bat zela. Egia esan, ez dago terapia hoberik zerbaiz gaizki doanean, barneko zirkuituek behar bezala funtzionatzen ez dutenean, Bachen perfekzioa entzutea baino, denbora gutxian izugarri arinduta sentitzeko. *Bach efektuaz* ere hitz egin da lidergoa eta sormena hobetzeko estrategia gisa, eta ez da tontakeria.

Baina, kontuz: maila psikologikoan eta estetikoan garai guztietako musika-arkitektura perfektuena duen konpositore honetaz gozatu ahal izateko, maila bereko interpretazioa behar da. Eta horixe izan zen, hain zuzen ere, La Cetra Barockorchester & Vocalensemble Baselek Kursaalean eskaini zuena.

Bachen *Pasioa, San Joanen arabera*,

gehien programatzen den musikagilearen bi pasioetako bat da. *Pasioa San Mateoren arabera* ezagunagoa izan daitekeen arren, lehenak dramatismo berezia du, laztasun delikatua, benetan hunkigarria egiten duena. Musika oso adierazkorra da. Entzulea hasieratik harrapatzen duen narratiba musikal indartsua du.

Talde suitzarrak, Andrea Marcon buru duela, bertsio historizista eta,aldi berean, grinatsua egin zuen, esaldi bakoitzari, aria bakoitzari, eskatzen zuen bultzada dramatiko eman baitzioten. *Herr, unser Herrscher* abestian, sufri-menduz betea, abesbatzarekin hasi zenetik, amaierako *Ruht wohl, ihr heilige Gebeine* jainkotiarreaino, entzuleek arnasari eutsi zioten, eskainitako bertsioa adierazkortasun izugarrikoa izan baitzen, beti musika perfektu baten eta

ebanjelioa bezalako testu zirraragarri baten zerbitzura.

Bakarlariei dagokienez, Christian Wagner baxua, Jesusen paperean, oso egokia izan zen, bere presentzia handi eta ahots sakonarekin. Jakob Pilgram tenorrak, ebanjelariaren rolean, ahots argitsua eta interpretazio doia erakutsi zituen, pertsonaiak eskatzen zuen bezala. Shira Patchornik sopranoa izan zen gaueko beste protagonistetako bat, benetan nabarmendu ziren aria batzuekin.

Gainerakoan artean Francesc Ortega baxua nabarmendu genezake, Pilatoren paperean oso sinesgarria izan baitzen.

Baina ezaugarri indibidualen gaine-tik, azpimarragarriena Marcon zuzendarriak talde osoan inprimatu zuen oreka delikatua izan zen, gure fibra emozionala ukitu zuen kontzertu bat eskaintzeko. Osasungarria, benetan. ●

Adidas

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Definitiboki garai baten amaiera pasatzen ari zaigu muturren aurretik. Sinetsi nahi ez duenak ere ezin du beste alde batera begiratu seinaleen aurrean. Azkena Alemaniatik iritsi da: hango futbol selekzioak iragarri du taldea ez dela 2027tik aurrera soropilerara irtengo Adidas markako ekipazioarekin. Aristerrazun techno jaialdi bat iragarriko balute gutxiago harrituko nintzateke, 70 urtez Alemania Adidas izan baita eta Adidas Alemania.

Beste inon horrelako erabaki batekin sortuko ez litzatekeen istilua eragin du notiziak, izan ere, Herderrren herrialdean txikili-txakalla dabilta beti beren *Volksgeist*-arekin. Erraz-erraza ere ez du izan behar beraientzat, zeren klaro, ea nork ematen dion buelta espiritu nazionalaren kontuari, ejem, nazismoa asmatu eta gero. Beraien marka komertzialak -BMW, Audi, Puma eta abar- merkatu libreko abertzaletasunaren sinbolo bihurtzeak hasieran funtzionatu zien arren, *Sturm und Drang* batek baino gutxiago iraun die. Volkswagen eskandaluarekin *Kulturpesimismo*n betean sartu ziren eta erremateko tiroa zirudibortzio futbolero honek.

Gauza jakina da, ez dago bizi osoan jantziko zaituen markarik, ezta mila urte iraungo duen Reich-ik ere, baina hala ere ezin sinisturik agertu da prentsaren aurrera Robert Habeck ekonomia ministro berdea, esanez hiru marradun marka eta selekzioaren arteko lotura "alemaniar identitatea-

ren zati bat" dela; eta hornitzaile-federazio tratuan "abertzaletasun pixka bat" falta izan dela. Karl Lauterbach osasun ministro sozialdemokratik beste kuartillo t'erdi: "Erabaki okerra iruditzen zait, zeinean merkataritzak tradizio bat eta etxearen zati bat suntsitzen dituen". Markus Söder Bavierako ministro-presidenteak (CSU) ere aldarrikatu du selekzioak hiru marradun elastikoa jantzi behar duela: "Baloia biribila dela eta partiduak 90 minutu irauten duela bezain argi zegoen hori".

Argi zegoen, halaber, Adidasek proiektatzen zuen imajinarioa: eragin-

kortasuna, fidagarritasuna, lehiakortasuna. Talde diziplinatuak, joko sendoa eta dotorezia. Alemaniak berdegunea zapaltzean transmititzen zuen espirituari eder zetorkion. Zerikusirik ez selekzioaren hornitzaile berria izango den Nike marka estatubatuarrarekin: fantasia, takoiarekin emandako paseak eta ñir-ñirra; jokalariai marrazki bizidunetako pertsonaien gisan agerraraziz lortu zuen 90eko hamarkadan futbolaren munduan nagusitzea.

Hau guztia serio hartuko bagenu, eta kontsumitzen ditugun markak balio politiko edo sozialen bat daukatela uste

dugun esnob horietakoak bagina, antolakuntzaren eta espontaneismoaren arteko debate klasikora iritsiko ginateke. Baina ez garenez, polemikaren zinismoan geratuko gara: Adidasen produktu asko Asiako landar merkeak baldintza jasanezinetan ekoizteak edo enpresaren akziodunen artean aspalditik alemaniarrik apenas egoteak ez zuen, nik dakidala behintzat, inor aberri minez kantari jarri klase politiko germaniarrean. Gainera, gaiak barrundatzen ari nintzela, okurritu zait kontu honekin espantuka dabiltzan bitartean, genozidio betean Israeli laztantxoak baino zerbait gehiago egiteak ere ez diela lorik kendu.

Harrigarria da zenbat miseria estal daitezkeen hiru marrarekin. Gaur egun, banderak baino hobeak dira markak funtzio horretarako. ●



Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



HIZKI PIZTI


Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

ARGIAko kideen artean...

3 aleren zozketa!

Parte hartzeko: komunitatea@argia.eus

Epea: **martxoak 27**



Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**. Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Egileak:

Amaia Egizazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

